AIARALDEA he-

JUGATX JIASHANG LARRAKOETXEA:
“Ondo edo gaizki egin, edonork disfrutatu dezake marrazten, praktika kontua baino ez da” 10-11 or.

ANDER PEREZ PUELLO:
“Beti ari gara gauzen zentzua ulertu nahian, eta ez dute zertan zentzurik izan” 18-19 or.

Lander Lopez @lopezsport

Lukene Trujillano, etorkizun oparoa pedaletan

AIARALDEA 4
Gora egin dute pobrezia adierazle guztiek azken bi urtean eskualdean
Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiketako Sailak egindako inkestaren arabera

EKONOMIA 14
Akordiorik gabe bukatu da Tubacexeko azken negoziaketa prozesua
Multinazionalak uko egin dio langileek aurkeztutako proposamenari

ARTZINIEGA 12-13
Egitarau kultural oparoa antolatu dute Udalak eta Jai Batzordeak
Kolorez jantzi ziren asteburuan Artziniegako kaleak, eta giro ona nagusi izan zen

KULTURA 22-23
Mikel Moreno Postmo Cultura egitasmoan dabil buru belarri
Laudioarrak hamarkada bat baino gehiago darama musika elektronikoaren munduan

AMURRIO 7
Tubos Reunidosek plan industrial berria aurkeztu zuen iragan astean
Trapagarango eta Iruñeko fabrikak itxi eta Amurriora ekarriko du azpiegitura

KIROLA 27
Ate joka dago 2021/22 futbol denboraldi berria eskualdean
Aiaraldea Komunikabideak tokiko taldeen egoera aztertu du, denboraldiaren atarian

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO
75 urte zurekin
PADI PROGRAMA
INPLANTEAK
3D ERRADIOGRAFIAK
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00
Mediku zentroa RPS: 314/18

herriz herri

Aiara

Lantenoko Eskoletako bi arbel historiko zaharberrituko dituzte

Lantenoko eskolak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailak Arabako Lurralde Historikoan sakabanatutako 10 ondasun zaharberrituko ditu, eta horretarako 54.000 euroko inbertsioaz baliatuko da. Izan ere, aurreko urteren aldean, bikoiztu egin da esku hartzeen kopurua. Ana del Val Kultura eta Kirol Saila zuzentzen duen foru diputatuak dioenez, "argi erakusten du sailak gure kultura ondarea kontserbatzeko eta zaharberritzeko konpromisoa, batez ere, krisitik irteteko eta suspertzen hasteko une honetan, inoiz baino garrantzitsuagoa baita horren alde egiten jarraitzea".

Zaharberrituko diren 10 elementuen artean Lantenoko Eskoletako bi arbel historiko daude. Gaur egun oraindik bertan kontserbatzen dira klarionaz marrazten ziren bi arbela karratu zaharrak, egurrezko marko batez inguratuta daudenak. Guztira inbertitutako dirutik, 3.184,72 euro erabiliko dira esku hartze horretarako.

Zaharberritze gehiago

Bestalde, aipatzekoak dira zaharberrituko diren gainontzeko ondasunak: Urarteko gurutzea, Opakuako gurutzadura, José López de Torre margolariari egotzitako *Kristoren bataioa* margolana, Zurbanoko administrazio batzarraren 1551ko betearazpen agindu bati dagokion pergamino baten 34 folio, Arroiabeko harrizko gurutzadura, Lekorako iturriaren aurrealdeko elementu artistikoak, Foronda Antezanako administrazio batzarraren artxibo-funtsa, Eltziegoko elizako kasulla bat, estola bat, dalmatika bat eta bi lepoko, eta Araiako Txarberren *Titulurik gabea* izeneko margolana.

Artziniega

Hobekuntzak egiten ari dira Artziniegako ikastetxe publikoan

Artziniegako Eskola Publikoa. **Aiaraldea.eus**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Uda honetan, urtero egin ohi den bezala, hobekuntza batzuk egiten ari dira Arteko Gure Ama ikastetxe publikoan. Udalaguntza izeneko laguntza-lerroaren barruan kokatzen dira inbertsioak, eta hauen kostua Hezkuntza Sailaren eta udalaren artean partekatzen da. Aurten bi obra bereizi dira: argiteria aldaketa eta instalazioa eta kaleko eraikinaren estalkia konpontzea.

Argiteria aldaketa

Hilabete hauetan ikastetxearen barruko argiteriaren aldaketa egin eta guztiz berritu da, aurrerantzean energia aurrezteko helburuarekin. Artziniegako Udaletik adierazi dutenez, beharrezko jardueratatzat jotzen da egungo barruko argiteria-instalazioa hobetzeko, bai instalazioaren segurtasunaren ikuspegitik, baita eraginkortasun energetikoaren ikuspegitik ere.

Bi dira aurten egingo dituzten obrak, eta guztira 43.000 euroko kostua izango dute

Kostua 21.800 eurokoa da, eta herriko beste hainbat insatalaziotan ere energia aurrezteko lanekin jarraituko dute hurrengo hilabeteetan. Arlo honetan egingo diren hurrengo jarduerak udal pilotalekuaren eta futbol zelaiaren fokuak izango dira.

Estalkia konpontzea

Arteko Gure Ama ikastetxeko haurreskolako eraikinaren estalkia konpontzen ari dira ere; eraikinak zituen ur eta hezetasun filtrazioak saihestea da helburua. "Beharrezko eta premiazko jardueratzat jotzen da, gerta daitezkeen uriragazketa posibleak kontuan hartuta", azaldu du Joseba Vivanco alkateak.

Inbertsio honen kostua 21.200 eurokoa da. Aurreikusitako obren barruan estalkiaren kaltetutako elementuen konponketa dago.

Laudio

Laudioko tren geltokia berritzeko lanak hasi dituzte, eta bost hilabetez luzatuko dira

Laudioko tren geltokiko lanak. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Abuztuaren 30eko gauean abiatu zituzten Laudioko tren geltokia berritzeko lanak. Trenen zirkulazioa ez kaltetzeko asmoz, gauean zehar gauzatuko dituzte obrak, trenbide-sarearen mantentze lanekin bat eginez, 00:00etatik 5:00etara. Laudioko Udalak positiboki baloratu du lanen hasiera, eta aldez aurretik barkamena eskatu nahi izan die bizilagunei obrek sor ditzaketen eragozpen eta zaratengatik: "Ahalik eta txikiena izatea espero dugu" adierazi du tokiko erakundeak.

Azaldu dutenez, hainbat hobekuntza gauzatuko dituzte geltokiko azpiegituran: Nasak handitzea, nasa-kota berria gainditzeko arrapalak egitea, dagoen hesialixatu eta tratatzea, Urduñako aldean beste hesi bat eraikitzea aurrekoaren luzapen gisa, igogailuak kendu eta berriak jartzea, aterpea 2. nasatik 1. nasara eramatea edota markesina berriak instalatzea.

2 milioi euroko inbertsioa

Guztira 2 milioi euroko inbertsioa egingo du Renfek Laudioko tren geltokia berritzeko. Guztira 10 hilabeteko iraupena izango dute lanek eta Seranco enpresa arduratuko da hauek gauzatzeaz. Nasak berritzeaz gain, tren geltokiko sarrera ere eraldatuko dute, txarteldegiko aretora iristeko bi eskailera bide ezarriz eta igogailu berri bat instalatuz.

Sarrera nagusia 2015ean berritu zuten, baina zenbait arazo izan dira azken urteetan, irisgarritasunari dagozkionak batez ere. Izan ere, eskaileren ondoan jarritako plataforma ez du funtzionatzen, irisgarritasuna oztopatuz.

BABESTUTAKO EDUKIA

70 urteren ostean denda berria zabaldu du Garayo burdindegiak, orain arteko ibilbideari eutsiz

Hilabete honetan 70 urte beteko ditu Laudioko Garayo burdindegiak. Komertzioak 1951. urtean zabaldu zituen ateak Elizalde kaleko lokal ezagunean. Geroztik hiru belaunaldiren eskuetatik igaro da negozioa, betiko arreta hurbila mantenduz.

Urteurrenarekin bat eginez, establezimendu handiago batera egin du salto burdindegiak; aurrerantzean Maestro Elorza kalean izango baitira.

Zerbitzu erosoagoa

Lokal handiago batera eraman dute Jon eta Ane anai-arrebek aititek abiatutako negozioa. Espazio berriak zerbitzu hobea eta erosoagoa eskaintzen dio bezeroari, izan ere dendako produktu guztiak izango ditu eskura. Mostradoreko arretatik, erakusketa eta salmentara egin dute jauzi, horrela bezeroarentzat errazagoa izango da produktu desberdinak alderatzea edota prezioak kontsultatzea, erosketa atseginagoa eginez.

Garayo burdindegiak itxuraz aldatu du bai, baina 70 urte luze hauetako esentzia berbera mantenduz. Orain arteko zerbitzuak mantenduko dituzte, hala nola giltzen kopiak, zarraila aldaketak edota labanen zorrozketa. Metodologia berdina jarraituko dutela azaldu dute Jonek eta Anek, eta, esaterako, torloju eta iltzeak pisura saltzen jarraituko dute horretarako Elizalde kaleko dendan zuten balantza eta pisu berdinak erabiliz.

Burdindegiak gainera, urteak daramatza internet bidezko zerbitzua eskaintzen eta sare sozialetan ere jarraitu daiteke bertako jarduna. Azken aldaketa honekin "burdindegia XXI. mendera ekarri" nahi izan dutela azaldu dute anai-arrebek: "70 urteren ostean ibilbide luzea dugu oraindik aurretik".

Jon eta Ane Garayo burdindegiaren kokaleku berriaren aurrean. **Aiaraldea.eus**

GARAYO
Burdindegia / Sarraila-denda

Maestro Elorza 5,
LAUDIO

www.cadena88.com/garayo
94 672 05 35

herriz herri

Aiaraldea

Pobrezia adierazle ia guztiek egin dute gora eskualdean, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak argitaratutako inkestaren datuen arabera.

Pobrezia adierazle guztiek gora egin dute Aiaraldean azken bi urteetan

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Langabeziak eragin zuzena du pobrezia adierazleetan. **Aiaraldea.eus**

Pobrezia adierazle ia guztiek egin dute gora Aiaraldeko zonalde arabarrean. Hori ondorioztatzen du Pobreziari eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2020ko Inkestak, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak berriki argitaratu duena.

Inkesta horren emaitzen arabera, Aiarako Kuadrillako udalerrietan (udalerri horiek soilik sartzen ditu Eusko Jaurlaritzak "Aiara" terminoaren barruan) bizi diren biztanleen %7,4k pairatzen du mantentze-pobrezia, 2018an %4,2k soilik pairatzen zuen. Benetako pobrezia %2,2tik %5,1rea igo da bi urtean, eta %4,5tik %6,8ra, aldiz, benetako ongizaterik eza.

Metatze-pobrezia da aldatu ez den adierazle bakarra: zeroan zegoen 2018an eta berdin mantendu da 2020ko inkesten ondorioetan.

Hala ere, kontuan hartu behar da Aiaraldeko pobrezia maila, oro har, EAEko batez bestekoaren azpitik dagoela. Hiriguneak (Gasteiz eta Bilbo, batez ere) dira pobrezia maila altuenak dituztenak.

Gorabehera ugari

Pobrezia adierazleek aldaketa handiak izan dituzte azken hamarkadan eskualdean. 2016an izan zuten gorakada nabarmenena, ia-ia hirietako mailara iristeraino. 2018an, aldiz, beherakada handia egon zen, 2008ko datuetara (krisi ekonomikoa baino lehenagokoetara) jaitsita. Baina azken bi urteetan okerreraegin du berriz egoerak.

Gune industrializatuak

Durangaldea, Tolosa-Goierri eta Debabarrena eskualdeetan ere eman dira igoerak 2018tik 2020ra bitartean. Txostenaren arabera, 2020an pobreziak inpaktu handiagoa izan du "zerbitzuz besteko sektoreetan pisu erlatibo handiena" duten eskualdeetan. Beste modu batera esanda, pobrezia gehiago igo egin da zonalde industrializatuetan. Gune "urbanizatu eta ez hain industrializatuek", aldiz, "egonkortasun handiagoa" erakutsi dute epe luzera begira.

Aiaraldeko pobrezia maila, oro har, EAEko bataz bestekoaren azpitik dago, hiriguneak dira pobrezia maila altuenak dituztenak

Ahulezia krisialdietan

Gauzak hala, Aiaraldea bezalako eskualdeek, "susperraldietan hobeto erantzuten badute ere, ahulezia konparatibo handia erakusten dute produkzio-krisialdietan, dela nazioarteko industria-lehiaren, finantza-krisiaren edo COVID-19aren pandemiarekin lotutako geldialdi ekonomikoaren ondorioz".

Datuak biltzeko inkestak 2020ko ekainetik irailera egin ziren. Hau da, pandemiaren erdian. EAEko 4.350 etxebizitzatako kideek bete zituzten galdetegiak.

Aiaraldea

Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen sexualitatea jorratu du ASASAMek gida batean

ASASAM-eko kideak gidaren aurkezpenean. **Aiaraldea.eus**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Irailaren 4an ospatzen den Sexu Osasunaren Nazioarteko Eguna probestuz, ASASAM elkarteak pertsona ororen sexualitatea artatzeak duen garrantzia nabarmendu nahi izan du. Horretarako, Espainiako Estatuan aitzindaria den profesionalentzako gida bat argitaratu du, buru osasuneko arazoak dituzte pertsonen sexualitatea lantzeko.

"Sexualitatea subjektu bakoitza nola sentitzen den, nola bizi den eta bere burua adierazteko modua dela ulertuta, bizitza osoan irauten duen egitate biografikoa da, gizaki guztiok duguna. Gaixotasun mentalaren diagnostikoa izateak ez du esan nahi sexualitateaz gozatu ezin denik", adierazi du Maria Angeles Arbaiziagoitiak, ASASAMeko presidenteak.

Hain zuzen ere, 5 urte daramatza elkarteak sexualitatearen gaia lantzen burugaixotasuna duten pertsonekin eta beraien familiekin. Modu integralean landu izan dute gaia hainbat lan lerrotan, eta adituen laguntza izan dute horretarako. Urte guzti hauetan pilatutako esperientzia izan da atzo bertan -irailak 3- aurkeztu zuten gidaren oinarri.

Proiektu aitzindaria da ASASAMek aurkeztutako gida, baina Aiaraldeko elkarteak urteak daramatza gaia jorratzen

Ekimen honen bitartez, ASASAMek hobetu egin nahi du osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonek sexualitateari dagokionez egun jasotzen duten arreta. Horretarako, ibilbide-orri bat proposatu du erakundeek beren egoera-diagnostikoa egin ahal izateko, baita ikusarazteko, sentsibilizatzeko, prestatzeko eta ahalduntzeko hainbat ekintza ere.

Ibilbide luzea urratu du elkarteak sexualitatearen gaiari dagokionez. Gaia mahaigainean jarri zuten lehendabiziko aldian familia askoren aurreiritziekin egin zuten topo. Praktikak, ordea, agerian utzi du sexualitateari arreta eskaintzeak ondorio oso positiboak eragiten dituela.

Arakaldo

Eguzki plakak jarri dituzte herriko hainbat azpiegitura argindarrez hornitzeko

Arakaldoko udaletxean jarritako eguzki plakak. **Jabi Asurmendi**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Udal aurrekontuetan zehaztu bezala, plaka fotoboltaikoak instalatu dituzte aste honetan Arakaldoko udaletxean. Hauei esker, udaletxea bera, txokoa eta ur-biltegiak argindarrez hornituko dituzte aurrerantzean. Gainera, herriko txokoa eta udaletxea biomasa sistemaren bidez berotzen dira. "Energia berriztagarriz baino ez dira elikatuko Arakaldoko eraikinak, bat izan ezik" azaldu du Jabi Asurmendi alkateak.

14.000 euro baliatu ditu udalak energia burujabetzaren aldeko urrats hau gauzatzeko. Aurreikuspenen arabera, 11 urtean espero dute inbertsioa amortizatzea.

Asurmendik aurreratu duenez, udazkenean hasiko dira herritarrekin komunitate energetikoaren gaia lantzen, udalerriko etxebizitzak sistema berri honen bidez hornitzeko ere. Tokiko erakundearen helburuak energia berriztagarriak sustatzea eta deskarbonizazio prozesuan laguntzea dira.

herriz herri

Urduña

Kolunbarioa eraikiko da hilerrian, frankismoaren biktimak omentzeko

Testua
Unai San Pedro Camacho

Urduñako Udalak publiko egin zuen udal-hilerrian Duintasunaren kolunbarioa eraikitzeko lanen lizitazioa. Hau eraikitzearen helburua Urduñako kontzentrazio esparruan eta espetxe zentralean hildako pertsonei nahiz Gerra Zibilaren eta frankismoaren biktimei omenaldia egitea izango da, hain zuzen. Proiektuak aurkezteko epea irailaren 13an bukatuko da, 14:00etan.

Obraren aurreikuspenean 72.720 euroko aurrekontua kalkulatu dute, eta Gogorak finantzatuko du Memoriaren Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuak. Bertan, hilobitik atera zituzten Gerra Zibileko biktimen gorpuak gordetzeko espazioa diseinatuko da.

Proiketuaren aitzindaria Elgoibarko Olasoko hilerriaren ondoan 2017ko urtarrilean inauguratutako kolunbarioa da. Honek 44 hobitatik ateratako 57 pertsonen gorpuak jasotzen ditu.

Orozko

Alaitz Aramendiren etxeratzea aldarrikatu dute

Zubiaru Plazan elkarretaratzea egin zuten. **Sare Orozko**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Alaitz Aramendi euskal preso politiko orozkoarrak 14 urte bete zituen espetxean iragan irailaren 1ean. Orozkoko Sarek Elkartasun Eguna antolatu zuen herrian, eta hainbat jarduera burutu zituzten Aramendiren etxeratzea aldarrikatzeko.

Orozkoarrak 13 urte eman zituen Frantziar Estatuan preso 2021eko urtarrilera arte. Orain 40 urteko espetxe zigorrari egin beharko dio aurre Espainiako Estatuan, gaur gaurkoz Orozkotik 400 kilometrotara dagoen Brievako espetxean. Aramendi 2007an atxilotu zuten eta 2012an epaitu, "erakunde terroristako" kide izatea leporatuta.

Hain zuzen ere, hori azpimarratu zuten Zubiaur Plazako arkupetan egindako elkarretaratzean: "2061. urtea da Alaitz Aramendiren irteera urtea, onartezina da pertsona bat 40 urte baino gehiagoz espetxean egotea".

Amurrio

Laia eskolak, Arabako emakumeen jabekuntza eskolak, 5. urteurrena ospatuko du irailaren 11n Amurrion

Ekitaldi ugari antolatu ditu Laia Eskolak Aiaraldean azken urteetan. **Aiaraldea.eus**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Laia Eskolak, Arabako Emakumeen Jabekuntza eta Berdintasunerako Eskolak, bost urte bete ditu, eta hori ospatzeko elkarrizketa mahai bat antolatuko du irailaren 11n. Amurrioko Antzokian egingo da, 11:30etik aurrera.

Ramiro Gonzalez ahaldun nagusia eta Encina Castresana Aiarako Kuadrillako presidentea arduratuko dira ongietorria egiteaz. Bertan parte hartuko dute baita ere Begoña Etayok (aktibista feminista eta 'La hora violeta' irakurketa klubaren koordinatzailea), Maria Carmen Rodríguezek (Gaubeako mediku eta 'Laukia-Mujeres en acción' elkarteko ordezkaria) eta Paula Fernandezek (sare sozialetako 'body positive' aktibistak).

Horrez gain, rap feministaikuskizuna egongo da.

Ekitaldian elkarrizketa mahai bat eta emakumeen rap ikuskizuna egongo dira

Hitzordua 13:00etatik 14:00etara izango da, Juan Urrutia parkean. Iragan larunbatean -irailak 4- izan zen izena emateko azken eguna.Bestalde, autobus zerbitzua egongo da, eta gurasoek haurtzaindegi zerbitzua euren eskura izango dute. Zeinu hizkuntzako interprete bat ere egongo da topaketan.

Laia eskolak 5 urte

2016an sortu zen Laia Eskola, Gasteizko Jabekuntza Eskolari lotua. Bost urteko ibilbide honetan espazio propioa bereganatu du Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako jabekuntza eskolen artean, eta Laia eskola da udalerri maila gainditu eta herrialde osoan garatutako gisa honetako lehen egitasmoa.

Geroztik hamaika izan dira Araban, eta zehazki Aiaraldeko udalerrietan, egindako jarduerak.

Amurrio

Plan Industriala aurkeztu zuen iragan astean Tubos Reunidos taldeak. Ezkerraldeako eta Nafarroako altzairutegi eta fabrikak itxi eta Amurriora ekarriko du azpiegitura. Horrek enplegu suntsiketa eragingo duela salatu dute sindikatuek.

Tubos Reunidosek Trapagarango altzairutegia itxi eta Amurriora ekarriko du azpiegitura

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Plan Industrial berria aurkeztu zuen Tubos Reunidosek iragan ostegunean -irailak 2-. Langileen ordezkariekin bilera arratsalderako zehaztuta zegoen arren, beharginek prentsan filtratutako informazioaren bidez ezagutu dituzte taldearen asmoak: Tubos Reunidosek Trapagarango altzairutegia eta Iruñeko planta itxi eta Amurriora ekarriko ditu bertako azpiegiturak eta langileen zati bat. Enpresak altzairutegiaren lekualdaketak "eragin soziala izango duten kaleratzerik" ekarriko ez duela adierazi du. Amurrion abiaraziko den altzairutegi berriak deskarbonizazioa eta produkzioaren modernizazioa helburu dituela azaldu du Tubos Reunidoseko zuzendaritzak.

Baina, sindikatuen iritziz, industria planak enplegu suntsiketa eragingo du.

Horrela adierazi du oharbidez LAB sindikatuak, eta azpimarratu du diru publikoa baliatuko duela Tubos Reunidosek enplegu suntsiketa hori gauzatzeko. Enpresak 112,8 milioi euroko laguntza publikoa eskatu zion SEPIri. Diru hori enplegua suntsitzeko erabiliko delako susmoa dutenez, LAB eta ESK sindikatuek enplegua eta lan-baldintzak mantentzeko klausula negoziatzeko eskatu zioten zuzendaritzari, baina honek uko egin zion horri.

Enpresak zabaldutako informazioak sindikatuen susmo eta beldurrak baieztatu ditu. "112,8 milioi euroko saria ematen zaie enplegua suntsitzen jarrai dezaten, pobrezia sortuz, haiek poltsikoak gizentzen dituzten bitartean" azaldu du LABek. Sindikatu abertzaleak adierazi du aurkeztutako neurriek Euskal Herriko eskualde zigortuenetako bat den Ezkerraldearen desindustrializazioan sakondu besterik egiten ez dutela. Gogorarazi du ere Tubos Reunidos 2018an saiatu zela Trapagaraneko altzairutegia ixten, eta langileen borrokak geldiarazi egin zuela prozesua.

Bide berdinetik jo du ELAko atal sindikalak, eta gaitzetsi egin ditu enpresaren asmoak: "ELAk uko egiten dio Enpresa Zuzendaritzak planteatutakoari. Planak ez du bermatzen zuzeneko eta zeharkako enplegua, altzairutegiaren etorkizuna ere kolokan jarriz. Era berean, enpresaren erabaki horrekin beste urrats bat eman da Ezkerraldea desindustrializatzeko prozesuan".

Zulo ekonomikoa

Uztailean baieztatu zuen Tubos Reunidosek Industria Partaidetzarako Estatuko Sozietateak (SEPI) eskatutako mailegua jaso egingo zuela: 112.800.000 euro. Hori baieztatu zuen akziodunen batzar berdinean erabaki zuten ere kontseilukideen soldatak igotzea. Zehazki, %21,7ko igoera onartu zuten akziodunen batzarran. 1.014.000 eurotik 1.235.000 eurora, hain zuzen. 2020an, ordea, 2,8 milioi euro banatu zituzten administrazio kontseilua osatzen dutenen artean. Enpresaren zor metatua 350 milioi eurokoa izatera iritsi zen urte berdinean. Hain zuzen, zor horren egituraketa berria eskatu behar izan zuen enpresak aurrera jarraitzeko, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espedienteak bata bestearen atzetik eskatzen zituen bitartean. Sindikatuen aburuz, zulo ekonomikoaren iturburua 2007an eskatutako 170 milioi euroko krediduan dago. Ustez, diru hori beste enpresa baten erosketarako baliatu behar zuten, baina azkenean akziodunen artean banatu zuten.

Tubos Reunidoseko langileak. **Aiaraldea.eus**

elkarrizketa

“Oso esperientzia dibertigarria izan da ‘Atrapado en los 90’ reality-an parte hartzea”

IKEAREN *ATRAPADO EN LOS 90* REALITY-AN PARTE HARTU DU **IÑIGO ARZA VILLANUEVAk** (Laudio, 1996) BOST EGUN IGARO DITU 1990. HAMARKADAKO ETXE BATEAN GILTZAPETUTA, BERE BELAUNALDIKO BESTE BOST GAZTEREKIN BATERA.

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

***Atrapado en los 90* reality-an parte hartu duzu. Nola sortu zitzaizun bertan aritzeko aukera?**

Sare sozialetan ikusi nuen iragarkia, lagun batek bidali zidan. Marka garrantzitsu batek 18-25 urte bitarteko pertsonak bilatzen zituen spot baterako, hainbat profiletakoak: abeslariak, bidaiariak, sukaldaritza-zaleak, tik-tokerrak, gamer-ak... Gran Hermano programaren castinga zeraman enpresa bera zegoen spot honetako hautaketa prozesua bideratzen, McCann. Bideo bat eta argazki batzuk bidali nituen maiatzean, nire burua aurkezteko. Asko gustatu zitzaiela esan zidaten, baina agentzia sortzailearekin aztertu behar zutela gehitu zidaten. Proiektu honek, berez, hiru adar zituen: ekoiztetxea (programa egiteaz arduratzen dena), sormen agentzia (spotaren ideia garatzen duena) eta bezeroa (Ikea). Ni ekoiztetxeak hautatu ninduen eta agentziak proposamena onartu zuen gero, eta Ikeari nire profila gustatu zitzaion.

Asko gustatu zitzaien selfie-kin egiten dudana. Egunero ateratzen diot argazki bat nire buruari, duela zortzi urtetik hona. Hasieran ez ziren oso ikusgarriak, Batxilergoko 2. mailan nengoelako. Baina bidaiatzen hasi ahala selfie ikusgarriak egiten hasi nintzen, Txinako Harresi Handian edota Machu Pichun, esaterako. Horrek ere deitu zien arreta.

Nolakoa izan zen grabaketa?

Guk ez genekien zer grabatzera gindoazen, ezta nortzuk joango ginen ere. Azken egunean esan ziguten Ikearentzako zerbait egitera gindoazela eta etxe batean elkarbizitzen egongo ginela, 24 orduz inkomunikatuta.

Laburra izan zen grabaketa, aste bat baino gutxiago iraun zuen, baina atsegina izan zen. Ni nintzen partaide guztien artean ezezagunena, ez naizelako batere ezaguna. Gainontzeko partaideek agenteak zituzten. Animalizek, adibidez, 7 milioi jarraitzaile baino gehiago ditu TikToken. Thanixek ere 4 milioi jarraitzaile ditu eta bideo-jokoei buruzko streaming-ak egiten ditu. Gemmak 300.000 jarraitzaile ditu YouTuben eta abesti bat plazaratu du. Davidek Cuatro kateko reality batean parte hartu zuen. Mia, aldiz, oso pertsona ezaguna da Madrilgo LGTB munduan.

Programara sartu eta jende hori guztia ikusi nuenean harritu egin nintzen, ez nekien nola iritsi nintzen ni horraino (barreak). Baina, behin iritsita, aurrera jarraitzea erabaki nuen, horrelako aukerak ezin direlako alferrik galdu.

Oso esperientzia dibertigarria izan zen. Etxean sartzean 9190. hamarkadan girotua zegoela ikusi genuen. Ez genuen espero, Ikearen estiloko toki bat izango zela uste genuelako. Orduan azaldu ziguten aurten 25 urte betetzen direla Ikea Espainiako Estatura iritsi zenetik, eta gu, 25 urte edo gutxiago ditugunez, ez dugula “Ikearik gabeko mundu bat” ezagutu. Programan zehar hainbat proba egin behar genituen, eta Ikearen produktuak jasotzen genituen sari moduan, gure egonaldia atseginagoa izateko.

Erabat inkomunikatuta geunden, mugikorrik gabe. Baina grabatutako saioak oso azkar doaz. Gauza asko bizi izan genituen eta oso dibertigarria izan zen, baina Ikearen helburua bere markaren promozioa egitea da. Azken finean, publizitate spot bat da grabatu genuena.

Alde handia dago pantailan ikusten denaren eta zuek bizi izan zenutenaren artean?

Ez. Eurek ez ziguten inolako jarraibiderik eman. Etxera sartu ginenean ez genekien nora gindoazen. Ahots bat zegoen, argibideak ematen zizkiguna, baina ezer gehiago ez. Erabat erreala izan zen bertan bizi izan genuena.

Egia da gero 5 eguneko esperientzia hura 4-5 minutuko 8 ataletan laburbildu dutela. Egonaldi osoa 40 minutu ingurutan laburbildu dute. Gauzak hala, oso azkar doa dena. Baina logikoa da horren bideo laburrak egitea, gaur egun oso zaila delako jendearen arreta denbora luzez bereganatzea.

babestutako edukia

elkarrizketa

“Ondo marraztea ez da berezko talentu bat, praktikarekin lortzen da”

JUGATX JIASHANG LARRAKOETXEA GOROSTIDI (Laudio, 2007)
AMAIURKO NAFAR GAZTELUAREN SETIOA OINARRI, IKASTOLEN ELKARTEAK ANTOLATUTAKO KOMIKI LEHIAKETA IRABAZI DU. ILUSTRAZIO DIGITALA LANTZEN DU, ETA BERE KABUZ IKASIZ BEREGANATU DU TEKNIKA.

Testua eta argazkia
Aimar Gutierrez Bidarte

Nola animatu zinen Ikastolen Elkarteak antolatutako komiki lehiaketan parte hartzera?

Ikastolako webgunean ikusi nuen iragarrita Ikastolen Elkarteak antolatutako komiki lehiaketa, oso ideia interesgarria iruditu zitzaidan eta marrazteari ekin nion. Oso gustuko ditut komikiak eta marraztea. Hilabete eta erdi egon nintzen guztia prestatzen. Tartean gure plastika irakasleak kurtso guztia animatu zuen parte hartzera, ordurako nik nahiko aurreratua nuen lana.

Komikiak aurkeztu genituen eta nireak lortu zuen lehenengo postua. Komikia zuri-beltzean aurkeztu behar zen eta saria Dani Fano marrazkilariarekin elkartzea eta egindako komikia koloreztatzea eta argitaratzea izan zen. Datozen hilabeteetan aterako da argitara.

Nola dokumentatu zara Amaiurko gazteluaren setioaren inguruan?

Lehiaketaren oinarriekin batera Amaiurko gazteluaren inguruko informazioa jarri zuen Ikastolen Elkarteak eskuragarri. Nik interneten informazio gehiago bilatu nuen, gaian sakondu eta gidoi garatuago bat osatu nahi nuelako. Ez nuen istorio sinple bat idatzi nahi, non Amaiurko gazteluko pasarteak modu orokorrean eta kronologikoan kontatuko nituen. Pertsonaiak jarri nahi nituen erdigunean.

Lau orrialde aurkeztu ahal genituen soilik, ez zegoen pertsonaien emozioak garatzeko espazio nahikorik, baina gutxienez irakurlearen eta protagonisten arteko lotura txiki bat nahi nuen garatu, kontakizuna errealagoa izan zedin.

Gauzak horrela hiru pertsonaia garatu nituen, garaiko pertsona errealetan oinarrituak hirurak: Amaiurko gazteluko kapitain nafarra eta Gaztelako armadako beste bi pertsonaia. Garaiko janzkera nolakoa zen jakiteko ere informazioa bilatu nuen, ahalik eta zehatzena izatea zen nire helburua.

Setioaren zein pasarte kontatzen du komikiak?

Amaiurko gazteluan zeuden pertsonek Gaztelako armadaren aurka eustea lortu zutela irudikatu nahi izan dut. Kuantitatiboki askoz gutxiago izan ziren arren, gaztelarrek ez zuten hain erraz menderatu gaztelua. Lau orrialdetan banatu dut istorioa: lehenengo orrian

elkarrizketa

izan zen niretzako zatirik zailena. Behin hori bukatuta, onomatopeiak txertatu eta kolore gris eta beltzarekin margotu nuen. Horrela esanda erraza dirudi baina oso prozesu luzea da. Orain koloreztatu egin dut eta laster argitaratuko da Ikastolen Elkartearen aldizkarian.

Dani Fanorekin egoteko aukera izan duzu, nolakoa izan da esperientzia?

Oso interesgarria. Nik ez nuen ezagutzen. Lehiaketako epaimahaiko kidea zela irakurri nuenean hasi nintzen berari buruzko informazioa bilatzen.

Arratsalde oso bat pasa nuen berarekin. Komikia nola hobetu azaldu zidan, biñeta batzuk nola hobetu... Oso esperientzia aberasgarria. Asko motibatu ninduen hain ondo marrazten duen eta profesionalki komikigintzara dedikatzen den norbait pertsonalki ezagutzeak.

> **“Ondo ala gaizki egin, edonork disfrutatu dezake marrazteaz. Uste dut barruan duguna askatzeko modu polita dela”**

Denbora asko dramazu marrazten?

Txikitatik erakarri nau marrazteak. Txikia nintzenean ez nintzen bereziki marrazkilari ona, baina praktikatuz eta praktikatuz lortu dut gaur egun dudan maila. Autodidakta naiz. Ilustrazio digitala ere nire kabuz ikasi dut, YouTubeko bideoen laguntzarekin. Hau da komiki bat egiten dudan lehenego aldia, asko gustatu zait esperientzia eta uste dut jarraituko dudala komiki gehiago sortzen eta teknika hobetzen. Ez dut nire burua honetan lan egiten ikusten gaur gaurkoz, nork daki, baina nahiko nuke komikia erabili nire istorio propioak kontatzeko, barruan dudana askatzeko.

Zer uste duzu behar dela ondo marrazteko?

Askotan entzuten da ondo marraztea berezeko talentu bat dela eta ez nago batere ados, praktikatzea da muina. Edonork disfrutatu dezake marrazteaz, interesa eta gogoa jartzea besterik ez da behar, eta marrazteari denbora eskaintzea. Uste dut oso modu polita dela norberak bere barruan duena islatzeko, eta nahiko nuke jende gehiagok marrazte, proiektu interesgarri eta ederrez gozatu ahal izateko.

> **“Gaztelarrek Amaiurko gaztelua nola hartzen duten azaltzen dut komikian”**

gaztelarrek setioa prestatzen dute, bigarrenean nafarrek eutsi egiten diote erasoari, hirugarrenean zailtasunak hasten dira eta azkenegoan gaztelarrek Amaiurko gaztelua nola hartzen duten azaltzen dut.

Ze teknika erabili duzu komikia marrazteko?

Nik digitalki egiten dut lan, eta horretarako tableta grafikoa erabiltzen dut. Lehenengo urratsa biñeteak zeintzuk izango diren argi izatea da, hasieratik amaierara. Inportantea da ere biñetak irakurlearentzako logikoa izango den orden batean jartzea. Hezurdura hori ezinbestekoa da prozesuarekin jarraitzeko.

Ostean zirriborroa egin nuen, eta behin biñeta guztien konposizioa bukatuta, detaile txikiei heldu nien: begiren bat ondo ipini, ilea ondo marraztu... Bukatzeko zirriborroa birpasatu beharra dago, marra garbi bat utziz, hori

argazki erreportajea

Udalaren eta Jai Batzordearen eskutik, jarduera sorta oparoaz gozatu zuten Artziniegako herritarrek asteburuan. Musikak, antzerkiak eta eguraldiak lagundutako giro atseginak hartu zituen herriko kaleak, adin eta gustu guztientzako gozagarri,

Kolorez jantzi dira Artziniegako kaleak asteburuan

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Sakatu Elektrotxarangak Garai Plazan eman zion hasiera Artziniegako Udalak eta Jai Batzordeak antolatutako egitarau kulturalari. Eguraldia lagun, giro atsegina nagusitu zen herrian, eta zenbait auzokidek jaietako ohiko praka koloretsuak jantzi zituzten egunaz gozatzeko. Bien bitartean, La Encina jatetxean, igel toka txapelketa antolatu zuen Naniano Naniano elkarteak. Lehia bizia izan zen azken unera arte. Txapelketan bildutako dirua Tubacexeko langileen erresistentzia kutxara bideratu zuten.

Iluntzean Hutsun-Ortzi taldeak aho bete hortz utzi zituen Toñi Luengas Frontoian elkartutako dozenaka ikusle, txalaparta eta akrobaziak uztartzen zituen ikuskizun batekin.Pirineum tabernak, udan zehar prestatutako egitarauarekin jarraituz kontzertu berri bat eskaini zuen; oraingo honetan Ganbara taldeak jarri zion musika Barrenkale kaleari. Egunari amaiera emateko, Golden Covers taldea igo zen oholtzara.

Igandean Arabako Biraren 2. jardunaldian lehiatu ziren kadete mailako txirrindulariak eta Aiarako gazteek lehenengo postua eskuratu zuten taldekako sailkapenean. Arteko Amaren santutegian, ordea, urteroko enkantea berreskuratu zuten.

Errepikatzeko gogoz

Datorren astebururako ere egitaraua prestatu dute Artziniegan. Besteak beste, Rock eskolako kideek kontzertua eskainiko dute.



OSASUN NEURRIAK

Udalak eta Jai Batzordeak antolatutako ekintzetan COVID-19ari aurre egiteko neurriak ezarri zituzten, festa giroaz modu seguruan gozatzeko.

argazki erreportajea

KOLOREAK KALERA

Artziniegako bizilagun askok ez zuten aukera galdu nahi izan eta bi urtez gordeta izan dituzten koloretako prakekin atera ziren kalera, herriko jai-koadrilen bereizgarri.

Erreportajea

Tubacexek atea itxi dio berriro lan gatazkaren konponbideari

Enpresa Batzordeko kideak Tubacexeko zuzendaritzarekin elkartzeko zain Laudion. **Aiaraldea.eus**

Akordiorik gabe bukatu da enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientearen negoziaketa. Zuzendaritzak lan gatazka konpontzeko inolako borondaterik ez duela salatu du enpresa batzordeak.

Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Atzo -irailak 7- burutu zuten enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteari buruzko azken bilera Tubacexeko zuzendaritzak eta enpresa batzordeak.

Multinazionalak irailaren 11n bertan aplikatu nahi du espediente berria. Hau abenduaren 30era arte luzatuko da eta %70eko eragina izango du.

Langileen ordezkariek proposamen bateratua aurkeztu zuten negoziaketa prozesuan: nahitaezko kaleratzeak albo batera uztea, Auzitegi Gorenean aurkeztutako helegitea erretiratzea eta 2024ra arte enplegua mantentzeko konpromisoa hartzea, azpikontratazeari uko eginez. Langileek, euren aldetik, uko egingo liokete ere lan-hitzarmenean adostutako enplegua sortzeko konpromisoari. Proposamena onartuz gero, enpresa Batzordeak oniritzia emango lioke Tubacexek aplikatu nahi duen enplegua aldi baterako erregulatzeko espedienteari.

Multinazionalak ezezko borobila eman zion sindikatuen proposamenari, argudiatuta ez dutela zer ikusirik 210 egunez luzatu den lan gatazkak eta espediente berriaren negoziaketak.

Langileen ordezkariek azaldu dute, hain zuzen ere, lan gatazkaren konponbidea izan daitekeela enplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea, baldin eta neurri estruktural ez-traumatikoez laguntzen baldin bada, hots, kaleratzeak erretiratzen badira.

Gauzak horrela, akordiorik gabe bukatu da azken negoziaketa. Tubacexek espediente berria aplikatuko du etzi, eta beharginek grebarekin eta mobilizazioekin jarraituko dute: "plantillaren etorkizuna bermatuko duen akordio bat bilatzeko lanean".

Bien bitartean auzitegietara joko dute berriro irailaren 20 eta 27an. Izan ere, multinazionalak uko egin zion langileen opor egunak errespetatzeari.

200 egun eta aurrera

Greba mugagabeak 200 egunen ortzimuga borobila zeharkatu zuen abuztuaren 31n; enplegua erregulatzeko espedientearen aurkako lan-gatazka, ordea, urtebete baino gehiagoz luzatu da dagoeneko.

Multinazionalak 2020ko udan iragarri zuen nazioarteko langile kopurua 20% murriztea. Neurri horrek Aiaraldeko plantetan izango zuen eraginaren esperoan egon gabe, irailean hasi ziren enpresa batzordeak deituriko lehenengo protesta ekimenak eta baita eskualdean ere dagoeneko ohikoak bilakatu diren manifestazio jendetsuak.

Urte hasierarekin ezagutu zen Aceralava, TTI Amurrio eta TTI Laudio fabrikentzako Tubacexen asmoak: 150 langile kaleratu nahi zituen guztira.

Otsailaren 11an eta 12an 24 orduko bi lanuzterekin erantzun zuten langileek, eta jarraian greba mugagabearekin jarraitu zuten enpresak enplegua erregulatzeko espedientea erretira zezan. Zuzendaritzaren eta enpresa batzordearen arteko negoziaketek ez zuten inolako emaitzarik lortu, eta multinazionalak 129 langile kaleratzeko estrategiarekin jarraitu zuen aurrera.

Bidean hamaika saiakera egin zituen Tubacexek greba bertan behera utzi eta langileen batasuna hausteko, baina horren aurrean Tubacexeko langileen atzean altxatzen zen harresi batekin egin zuen topo; eskualde osoak ezezko borobila eman zion multinazionalak enplegua suntsitzeko zituen asmoei.

Uztailean EAEko Auzitegi Nagusiak arrazoia eman zien langileei: enpresak, pandemia aitzakiatzat erabilita, neurri estrukturalak aplikatu zituen egoera koiuntural bati erantzuteko.

Sententzia eskutan izanda ere, multinazionalak ez zuen amore emateko inolako asmorik, eta berrartu behar zituen 129 langileak etxean mantentzea erabaki zuen, ITP Aero enpresaren eredua jarraituz.

Gainera, eta justiziaren aginduz derrigortuta egon arren, abuztuaren erdialdera arte ez ditu uztailaren 7tik berrartu behar zituen langileak altan eman Gizarte Segurantzan.

Bien bitartean EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurkako helegitea aurkeztu zuen Madrilgo Auzitegi Gorenean, 129 langileen etorkizuna are gehiago baldintzatuz, eta lan gatazka denboran luzatuz.

babestutako edukia

Karen Pasandin Sanchez (Orozko, 1993) Laudioko Oxford ingeles akademia berriaren arduraduna da. Metodo berritzailea erabiltzen dute bertan ingelesa ikasteko; era naturalean, ama hizkuntza ikasten den modu berdinean. Horregatik eskolak ingelesez egiten dituzte %100ean eta bertako irakasleekin egiten dute lan.

“Murgiltze eredua erabatekoa da Oxford akademian, ingelesa modu naturalean ikasteko”

2013an zabaldu zuen bere lehen eskola Oxford akademiak, Bizkaian. Ikasturte honetatik aurrera Laudion ere aurkitu daiteke. **Oxford**

Ingeles akademia berria ireki duzue Laudion, zer aurkitu daiteke bertan?

Murgiltze ereduan oinarritutako ingeles akademia da gurea. Oxford-ek ingelesa ikasteko metodologia propioa garatu du, ama hizkuntza ikasten dugun era berean ingelesa ikastea helburu duena: etxerako lanik gabe, memorizatu gabe... modu natural batean. Horregatik gure eskolak %100ean ingelesez eskaintzen ditugu, ikasketa prozesua ahalik eta eraginkorrena izan dadin.

Nola bermatzen duzue ikasketa prozesu eraginkor bat?

Bertako irakasleekin eta elebidunekin egiten dugu lan akademian, hizkuntzaren gaineko ezagutza handiak dutenak, ingelesa modu natural batean menperatzen dutenak. Naturalizatutako akatsak ekiditea lortzen dugu horrela.

“Ikasle talde murriztuak osatzen ditugu, jarraipen zuzena egin eta norbera bere ikasketa prozesuaren protagonista izan dadin”

Gainera, askoz jota 8 ikasleko talde murriztuak osatzen ditugu, ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua bermatuz. Garrantzitsua da pertsona bakoitza bere ikasketa prozesuaren protagonista izatea. Banakako tutoretzak eskaintzen ditugu ere, edozein zalantza edota behar modu zuzen batean artatu ahal izateko. Askoz eraginkorragoa da horrela ikasteak.

Askok hizkuntza ziurtagiri ofizialak eskuratzeko jotzen dute ingeles akademietara.

Hala da bai. Guk azterketa eta prestaketa ofizialak eskaintzen ditugu, "Official Preparation Centre" bat gara.

Behar desberdinei egokitutako ikastaroak eskaintzen ditugu: haurrentzako klaseak, pertsona nagusientzakoak, enpresa munduan daudenenei zuzenduak, mintzapraktikak... Norberaren neurrira egokituak funtsean.

OFFICIAL PREPARATION CENTRE
LANGUAGE SCHOOL OXFORD

Erreserbatu zure plaza:
747 43 82 86 - 94 655 45 2

Virgen del Carmen 11 - LAUDIO
llodio@oxfordls.com
@oxfordlaudio
www.oxfordls.com

AIARALDEA GAUR

agenda

2021/09/08
2021/09/22

Irailean ere kultur tantek busti egingo dituzte Laudioko kaleak

Abuztuan egin bezala egitarau oparoa antolatu du Laudioko Udalak irailerako. KultUda-Kultur Taupadak programaren barruan dozenaka ekintza prestatu ditu, adin guztietako herritarrentzat bideratuak.

Lamuza Frontoia

Lamuza Parkeko frontoia izango da egitarauaren protagonista nagusietako bat. Izan ere, Udalak, eszenatoki nagusia kokatu du bertan. Abuztuaren 28an Dupla bikote aguraindarrak estreinatu zuen espazioa eta irailerako hainbat dira bertan aurreikusitako ekintzak. Aurreko astean Puro Relajo taldea izan zen, eta larunbat honetan -irailak 11- Glo Circo taldeak *Sacred* dantza bertikaleko iskukizuna eskainiko du. Udalak espero du aurrerantzean ere ekintza gehiagotarako erabiltzea tokia, espazio zabala eta atsegina eskiantzen baitu.

Musika bakarrik ez, antzerkiak eta magiak ere hartukod ute egitarauaren zati bat. Iraileko hirgarren larunbatean gainera -irailak 18-, ekintzak Lateorro auzora mugituko dituzte, auzoko jaiak izan beharko luketen egunekin kointzidituz. Lateorron, Itxarkundia Dantza taldeak emanaldia eskainiko du, besteak beste.

MUSIKA

09.10 Ostirala
22:00 ARTZINIEGA
ARTZINIEGAKO ROCK IZARRAK
Hiriko Atea

09.11 Larunbata
20:30 LAUDIO
EKHI LAMBERT
Faktoria

09.11 Larunbata
21:30 ARTZINIEGA
KUTTUNE
Hiriko atea

09.17 Ostirala
20:00 AMURRIO
THE SORRY STRING BAND
Kontzertua
Amurrioko Parkea

09.18 Larunbata
20:00 LAUDIO
MOLTO VIVACE
Musika Elkartea
Lateorro

09.18 Larunbata
20:30 LAUDIO
MICE
Faktoria

DANTZA

09.08 Asteazkena
18:00 LAUDIO
NURIA Y RAQUEL DANTZA ESTUDIOA
Ate irekien jardunaldia egingo dute ikasturte berriari begira
Nuria y Raque Dantza Estudioa

09.13 Astelehena
17:00 AMURRIO
DANTZA CAMPUSA
Irailaren 13tik 17ra luzatuko da
Udal Dantza Eskola

09.18 Larunbata
13:00 LAUDIO
DANTZALDIA
Itxarkundia dantza taldeak antolatuta
Untzueta Plaza, Latiorro

09.19 Igandea
12:30 OROZKO
DANTZALDIA
Ubixeta elkarteak antolatuta
Zubiaur Plaza

HAURRENTZAKO EKINTZAK

KIROLA

09.11 Larunbata
9:30 AMURRIO
PADDLE SURF
Euskarabide egitasmoaren barruan antolatutako multiabentura jarduera
Telefonika

09.11 Larunbata
10:00 BARANBIO
ANDRA MARI TXIKI SARI NAGUSIA
Kuskumendi mendi bizikleta taldeak antolatuta
Baranbio

09.18 Larunbata
9:30 AMURRIO
KAYAK
Euskarabide egitasmoaren barruan antolatutako multiabentura jarduera
Telefonika

IKUSKIZUNAK

09.09 Osteguna
20:15 ARTZINIEGA
JAVI Y LA MUERTE
Antzerkia
Hiriko atea

09.11 Larunbata
22:00 LAUDIO
GLO CIRCO: "SACRED"
Dantza bertikala
Lamuza Frontoian

09.18 Larunbata
18:00 LAUDIO
ESKOBOIEN ATZETIK
Antzerkia
Latiorro

09.19 Igandea
19:00 AMURRIO
EZ DA KASUALITATEA
Bertso-saio musikatua
San Anton Plaza

BESTELAKO EKINTZAK

09.11 Larunbata
10:00 URDUÑA
ANTIGOALEKO ETA BILDUMAZKO GAUZEN VIII. AZOKA
Foru Plaza

09.12 Igandea
11:30 ARTZINIEGA
HERRI KIROLAK

Okondoko ikastaroetan
izen-ematea

Uda bukatzear dago, eta honekin batera, urtero bezala, Okondoko Udalak hainbat ikastaro desberdin prestatu ditu. Zazpi izango dira guztira: pilates, yoga, hipopresibo 1 eta 2, helduentzako gimnasia, helduentzako on-line dantzak, eta Art Attack. Leku berean gauzatuko dira ekintza guztiak, kultur etxean, alegia. Urrian hasiko dira, eta ekainean bukatu. Izen emate epea irailaren 14an itxiko da.

Ekintza berriak Amurrion
gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko

Euskarabide proiektua erronka argi batekin abiarazi dute Amurrion: herriko gazteen artean euskara bultzatzea. Horretarako, gazteek multiabentura irteerak eta bestelako tailerrak izango dituzte eskura.

Programa irailaren 4an hasi eta urriaren 9ra arte luzatuko da. Ekintza guztiak larunbatetan izango dira, eta 14 urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko euskara@amurrio.eus helbidera idatzi behar da. Kontuan hartzekoa da izena emateko epea ekintzaren asteko astelehenean bukatuko dela. Hurrengo irteera Paddle Surf praktikatzera egingo dute Amurriko gazteek, larunbat honetan bertan, irailak 11.

Gainera Euskara Eskola Ibiltaria izeneko ekimena burutuko da, teknologia berrien laguntzaz gazteei euskararen ezagutzan eta erabileran laguntzeko. ordubeteko saioak planteatuko dira astero, zeintzuetan TikTok tailerra, podcastak, filma laburrak... burutuko diren.

Egitarau kulturalari segida
emango diote asteburu honetan

Aurreko asteburuan egin bezala, asteburu honetarako ere jarduera sorta oparoa prestatu dute Artziniegako Udalak eta herriko Jai Batzordeak, Hiriko Atean.

Ostegunean Javi y la muerte antzerkia eskainiko dute Toñi Luengas Frontoian. Ostiralean aldiz Gorka Aginagalde bakarrizketan arituko da bertan, eta eguna agurtzeko Artziniegako Rock Izarrek kontzertua eskainiko dute oholtza nagusian.

Larunbatean, ordea, Kuttune taldea izango da iluntzeari doinua jartzearen arduraduna. Azkenik, igandean, herri kirol erakustaldia egongo da.

Lan mundurako
ikastaroak Laudion

Laudioko Udalak, hainbat entitaterekin elkarlanean, lan munduari begirako hainbat ikastaro antolatu ditu datozen asteetan Laudioko garapen agentzian. Orotariko gaiak landuko dituzte ikastaroetan, hala nola, lana bilatzeko aholkuak eta elkarrizketa prestatzeko gomendioak. hainbat lanpostu ezagutzeko saioak ere eskainiko dira.

HAURRENTZAKO EKINTZAK

09.11 Larunbata
11:00 OROZKO
UMEEN EGUNA
Orozkoko gaztetxokoak antolatuta
Gaztetxokoa

09.12 Igandea
11:00 OROZKO
DIBERTIDANTZA: DEABRU BELTZAK
Gaztetxokoa

09.12 Igandea
11:30 ARTZINIEGA
HERRI KIROLAK
Hiriko atea

09.18 Larunbata
11:30 OROZKO
GARRAFA EGUNA
Eguraldi ona eginez gero Zubiaur plazan egingo dute. Bestela, frontoian.
Zubiaur Plaza

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, 688 848 152 zenbakira AIARALDEA GAUR **mezua bidalita!**

TELEGRAM
Batu Telegramera t.me/aiaraldeaeus esteka bidez!

INFO+ www.aiaraldea.eus

elkarrizketa

“Poso gorpu beste begie maku adokt

ANDER PEREZ PUELLESek (Laudio, 1996) LAUDIOKO LAMUZA PARKEKO KULTURLAB LABORATEGIA ESTREINATU DU. BI ASTEZ EGON DA BERTAN BERE OBRA GARATZEN ETA ABUZTUAN AURKEZTU ZUEN JENDAURREAN. EGINDAKO LANA ALETU DIGU.

Testua
Aimar gutierrez Bidarte

KulturLab espazioa estrenatu duzu, zer nolako esperientzia izan da?

Oso esperientzia aberasgarria eta dibertigarria izan da. Asko disfrutatu dut hemen proiektua garatzen. Banuen gogoa espazio askeago batean proiektu bat garatzeko.

Azken erakusketa Eremuakekin egin nuen, Balmasedako Horkasitas jauregian eta bertan sortutakoari heldu eta erakusketa berri bat egiteko gogoa piztu zaitzaidan.

Orain arteko erakusketetan egindakoaren kontrakoa egin dut hemen, edo hori bilatzen saiatu naiz. Nik normalean bideoa ekoizten dut eta gero bideo hori eutsiko duen oinarri bat bilatzen hasten naiz. Laudioko Parkean kontrakoa egin dut, beste noranzkoan abiatu dut lana. Erakusketa zaharretan baliatutako materialak hartu eta horiek kokatu ditut aurrena espazioan. Behin hori eginda txertatu dut bideoa. Oso prozesu interesgarria izan da.

Audioa ere baliatu duzu zure lanean, eta KulturLab-ek eskaintzen dituen moduloetan txertatu.

Bai, nire erakusketa guztietan erabiltzen dut audioa. Hemen, ordea, orain arte egin ez dudan betse zerbait egin dut ere: audioa eta musika banatu. Horretarako nire estudioko kidearen laguntza izan dut; bera musikaria da eta bozgorailuekin eta soinu pistekin ibili da ni laguntzen. Soinua obraren parte da, elementu independiente bat bezala.

Gainera, erakusketako gainerako elementuak bezala audioak ere erakusketa zaharretatik berreskuratu ditut, eta KulturLab espazioaren neurrira moldatu.

Zer da KulturLabeko moduloetan aurkeztu duzuna?

Erakusketa honetan bi bideo aurkeztu ditut, bi grabaketen artean urtebeteko diferentzia dago. Lehenengoa nire aitona-amonek argazki batean posatzeko egindako prozesu guztiaren grabaketa da. Bigarrenean aita eta ni agertzen gara paletan jolasten. Bi bideoetan hurrengo ideia jorratu nahi dut: kamerak ez duela zertan esku baten beharra grabatzeko, hots, grabatzen duen objektu autonomo bat dela. Esposaketan objektu hori ulertzen saiatu naiz, eta honen mugimenduak nola eragiten duen bukaerako irudian.

Horretarako, pala jokoaren bideoan, adibidez, palara dago lotua kamera zuzenean eta honen mugimenduak



“ Ez gaituzte hezten gauzekin disfrutatzeko, gauzekin egoteko”

jarraitzen ditu. Aitona-amonen bideoan uhaletik eusten dut kamara eta prespektiba horretatik grabatzen dut eszena guztia.

Honekin guztiarekin bigarren ideia batean sakondu nahi nuen ere, eta, hain zuzen ideia horren inguruko artikulua argitaratu nuen Eremuak aldizkarian: nola ekidin jendeak kamera baten aurrean posatzea? Grabaketetan konplizeak bilatu nahi ditut nik, eta ulertzen dut posatzea zure gorputzaren jarrera beste pertsonaren begietara makurraraztea dela. adoktrinatzea. Horrela esanda oso gauza abstraktua dirudi, baina gure egunerokoan askotan topatu ditzakegu horrelako egoerak. Izan ere, horixe bera gertatzen da Laudioko Malekoian adibidez, jendeak posatu egiten du; bere gorputzaren jarrera besteen begien mesedetara jarri. Oso gauza kuriosoa iruditzen zait.

Esan genezake ikus-entzunezkoak direla zure obraren oinarria?

Ez dut uste. Bideoak edo audioak lantzeak ez du esan nahi hori dela erakusketaren muina. Ni unibertsitatean eskulturan espezializatu nintzen, hori dut gogoko. Nik eskultura egiten dudala esaten dut. Izan ere, eskultura funtsean espazio bat sortzea da, izan betea edo hutsa, baina espazio bat finean. Hori da nik bideoarekin, audioarekin eta dozenaka objekturekin sortzen dudana: espazio bat.

Bideoa erakusketarekiko ditudan beharrak biltzen dituen tresna baino ez da, erreminta bat. Egia da urte hauetan guztietan ohartu naizela ezin dudala bideoa kendu nire obretatik, baina bideoa bera ez da helburua.

Gustora geratu zara egindako lanarekin?

Bai. Laudioko Lamuza Parkean erakusketa egiteak badu zerbait Bilbon egiteak ez duena. Bilbon normalean publiko espezializatua da hurbiltzen dena, eta horrek,

“Nik eskultura egiten dudala esaten dut. Izan ere, eskultura, funtsean, espazio bat sortzea da, eta hori da KulturLaben egin dudana”

nolabait, mugatu edo presioa sortzen dizu, bestearen begietatik ikusten duzulako zure obra. Hemen, ordea, askeago sentitu naiz. Gehiago sortu dut nigan pentsatzen eta hori finean askoz erakargarriagoa da publikoarentzako ere. Zama gutxiago izan dut hemen, baina badakit oraindik askoz gehiago egin dezakedala, askeago sortu. Badakit oraindik irudi bati erantzuten diodala, baina KulturLabek urrats bat gehiago emateko aukera eman dit. Erakusketa bukatu nuenean dena beltzez estaltzea otu zitzaidan, ezer ez zedin ikusi, baina ez nuen egin. Horregatik badakit oraindik asko dudala emateko etorkizuneko erakusketetan.

Uste duzu sorkuntza artistikoak merezi duen errekonozimendua daukala?

Uste dut heziketa-estetikoa falta zaigula. Ez gaituzten hezten gauzekin disfrutatzeko, gauzekin egoteko. Beti dugu ulertzeko beharra, ez gara gai ulertzen ez dugun zerbaitekin disfrutatzeko. Gauza asko gertatzen dira eta ez dute bestelako azalpenik behar.

Sorkuntza artistikoa eta sortzaileon lana ez da kontuan hartzen. Horren adibide argia dira sortzaileon lan baldintza prekarioak.

2021eko **iraila**

OPORRETATIK BUELTAN DA

FAKTORIA!

Irailak 11, zapatua 20:30ean

EKHI LAMBERT

[Musika]

Irailak 18, zapatua 20:30ean

MICE

[Musika]

Urriak 1, barikua 19:30ean

SUGARREN MENDE

[Liburu-aurkezpen ilustratua Asisko Urmeneta eta Helena Xuriorekin]

Urriak 2, zapatua 20:30ean

HARROBIAN

[Dantza bertikala eta proiekzioa]

Urriak 9, zapatua 20:30ean

TRIGGER

[Musika]

Urriak 15, barikua 21:00etan

BERTSO AFARIA

[Oihana Bartra Arenas eta Fredi Paia Ruizek girotua]

Urriak 16, zapatua 20:30ean

PERU GALBETE

[Musika]

Urriak 23, zapatua 20:30etan

J MARTINA

[Musika]

Urriak 29, barikua 20:30etan

KAITIN ALLENDE

[Bakarrizketa umoretsua]

INFO+ ***www.faktoria.eus***

IKASTAROAK

ZUMBA EUSKARAZ

Astelehenetan: *19:30etatik 20:30etara*

Izaskun del Cerro urduñarrak eskainiko du ikastaroa. Musika, izerdia eta dantza astelehenero!

BERTSO ESKOLAK



Astean behin

Haur, heldu zein gazteentzako deialdi irekia. Izen-ematearen arabera osatuko dira taldeak

YOGA ESKOLA

Astearteetan; *19:30etatik 20:30etara*

Yoga ere euskaraz egiteko aukera egongo da urritik aurrera Faktorian.

EUSKARA ADINEKOENTZAT

Astean bi egunez (izen-ematearen arabera); *11:30etatik 12:30etara*

Etxeko nagusiek euskaraz aritzeko oinarrizko ezagutzak eskuratzeko eskola arinak eskainiko dira.

HEZKUNTZA JARDUERAK

Astelehen eta asteazkenetan 17:30etatik 19:00etara - 19:30etatik 21:00etara

SORMEN ATELIERRA

Eskualdeko sortzaileen presentzia, sormen esperientziak, material eta disziplina ezberdinak... Esperientzia artistiko bat bizitzea da helburua.

Astearte eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara

HAUR ETA FAMILIA GUNEA

Familientzako bereziki prestatutako gunea, estalpean jolasteko eta lasai egoteko.

Astearteetan 17:30etatik 18:30etara eta 18:30etatik 19:30etara

ZIRKU TAILERRA

Zirkuaren mundura salto egin nahi? Etorri zure gorputzarekin jolastera, akrobaziak, oreka, malabareak, airea...
*Zirkuko profesionalek gidatuta

Ostegunetan 17:30etatik 18:30etara eta 18:30etatik 19:30etara

MUNDUKO DANTZAK

Dantza modu gozagarrian landuko dugu. Gorputza mugimenduan jarriko dugu munduko erritmoekin.
*Profesional ezberdinek gidatuta

Urriak 2, zapatua 11:00etan

FAMILIAN JOLASEAN

Familian jolasteko beste modu bat, kantu jolasak, haur literatura, betiko jolasak, ... haurren jolasen parte aktibo izan gaitezen, gurekin jolastu nahi?

Urriak 3 eta urriak 17, domeka 11:00etatik 13:00era

0-3 URTE ESPAZIO ASKEA

Mugimendu autonomorako eta jolas librerako espazio zaindua. Profesional baten laguntzaz, helduok behatu eta taldeaz disfrutatzeko gunea.

Egin zaitez bazkide

kultura

MIKEL MORENO (Laudio, 1991) HAMARKADA BAT BAINO GEHIAGO DARAMA MUSIKA ELEKTRONIKOAREN MUNDUAN MURGILDUTA. HAINBAT HERRIALDETAN BIZI IZAN DA, ETA POSTMO CULTURA EGITASMOAN SARTUTA DAGO ORAIN BURU BELARRI.

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Duela hamarkada bat baino gehiago hasi zinen musika elektronikoaren munduan. Ordutik hona hainbat musika estilo jorratu dituzu. Nola laburbilduko zenuke zure ibilbidea?

Oso anitza eta etengabea. Elektronikarekin hasi nintzenean, duela 11 urte, oso itxita nengoen soinu honetara, eta ez nuen Technoa ez zen beste estiloei buruz ezer jakin nahi. Baina urte hauetan zehar jende, kultura, herrialde, musika eta giro ezagutu asko ditut, eta nire burua irekitzen lagundu didate, ez bakarrik musikalki, baita mentalki ere.

Uste dut garrantzitsua dela ezagutzen duguna baino pixka bat urrunago joateko lan egitea. Interesgarria da, musikaz gain, beste gizarte eta kultura batzuetan gauzak nola bizi dituzten ulertzen saiatzea, edo, behintzat, hori deskubritzeko nahia izatea.

Nola definitituko zenuke orain jorratzen duzun musika estiloa?

Uste dut ezingo nituzkela nire sesioak musika estilo batera murriztu. Saio berean estilo desberdinak nahastea gustatzen zait. Denboraldiz denboraldi. Oraintxe bertan techno eta afrikar musika nahasten ari naiz, baina bihar auskalo.

Hau da DJ gisa dudan ezaugarri nagusia: ez dut musika estilo zehatzik. Nire saioak entzutera eta dantzatzera etortzen den jendea harritzea gustatzen zait, eta aurrez ezagutzen ez dituzten musika estiloak ezagutaraztea.

Trap musika jorratzen hasi zinen duela zenbait urte, musika mota hori ospetsua bilakatzen hasi baino lehen. Nola bizi izan duzu estilo horrek izandako eztanda?

Egia esan, trap musikarekiko maitasun zein gorrotoa dut. Musikalki asko gustatzen zait, egia da. Asko gustatzen zait transmititzen duen energia eta hip hopari eman dion ukitu elektronikoa. Egia da nire bizitzako garai batean nire DJ sesioetan oso presente egon zen musika estilo bat izan zela, Fever Bilbaoko Trap Avenue jaiak antolatzen genituenean (musika estilo horren alde egin zuen Bilboko lehen musika kluba), baina ez dut inoiz %100ean bizi izan. Ez kulturak, ez mezuak, ez transmititzen duen bizimoduak ez naute ordezkatzen eta ez dago nire egunerokotasunean presente. Kontsumitzen dudan musika da, bai, baina ez naiz kultura horren parte.

Artea prozesu kolektiboa da niretzat, %100ean”

“Hau da DJ gisa dudan ezaugarri nagusia: ez dut musika estilo zehatzik”

Hego Amerikan ibilitakoa zara. Zer nolako esperientzia izan da hori eta zer nolako eragina izan du zugan sortzaile gisa?

Bai, Argentinan bizi izan naiz urtebete, Perun 2 urte, eta Latinoamerikako beste herrialde batzuetatik bidaiatzeko aukera izan dut azken urteotan. Esperientzia horrek beste kultura, giro eta musika estilo batzuk ezagutzen lagundu dit, baina, batez ere, pertsonek bertan musika eta dantza nola bizi dituzten ulertzeko balio izan dit.

Musika eta dantza txikitatik elkartuta bizi dute toki horietan. Ezinezkoa da musika eta dantzatik at bizitzea. Hori asko nabaritzen da festa edo diskoteka batera joaten zarenean, mundu guztia dantzan ari delako. Pentsaezina da diskoteka batera joan eta barran geratzea. Latinoamerikan, ia behartuta, dantza egin behar duzu.

Gainera, musikalki hemen baino irekiagoak dira. Euren folklorea eta musika tradizionala maite dituzte, eta guztiak batzen dituen gauza da, baina oso irekita daude musika estilo berrietara. Elektronika jaietara joaten den jendea reggaeton jaietara joaten da ere. Kumbiako festetara joaten den jendea ere joaten da rock kontzertuetara. Eta oso garrantzitsua den gauza bat: inor ez da musikaz kexatzen eta inork ez dio DJari musika aldatzeko eskatzen.

Hemen oso banatuta gaudela uste dut, eta badirudi gauza bat gustatzen bazaizu, ezin zaizula bestea gustatu. Azkenean, horrek eragiten du beti jende mota berarekin elkartzea, leku berean eta giro berean. Horregatik, nire saioetan musika estilo desberdinak nahasten ditut beti, giro ezberdinak elkartu eta normalki espazio berean dantzan egongo ez litzatekeen jendea dantzan ikustea gustatzen zaidalako.

Bost urte igaro dira POSTMO Cultura egitasmoa sortu zenuenetik. Zertan datza eta zer nolako bilakaera izan du orain arte?

POSTMO Cultura EHUn Gizarte Antropologiako gradua amaitzen ari nintzela hasi nuen proiektua da.

Beti izan naiz kultura eta joera berriak aurkitzeko kezka handia izan duen pertsona. Telebistan edo irratian erakusten digutenaz harago joatea gustatu zait beti. Interneten nabigatzen ari nintzela, egunero ikusten nuen artista interesgarrien lana, bai tokian-toki, bai nazioartean Zerbait sortu behar nuen informazio guzti hori partekatzeko. Gainera, ipurdi urduria izan naiz beti, eta aitzakia bat behar nuen buruan nituen proiektu eta ideia guztiei forma ematen hasteko. POSTMO aitzakia perfektua izan zen.

Musika sortzaile gisa hasi zinen, baina POSTMO Culturan hainbat diziplina uztartu dituzue. Bilakaera naturala izan da?

Bai, bilakaera naturala izan da. Urte hauetan zehar, jende guztiari eta ezagutu ditudan artista guztiei esker, lehen ezagutzen ez nituen gauza asko ikasi eta aurkitu ditut.

Azkenean, gauza batek bestea dakar. Jende berria ezagutzeak eta artista desberdinekin lan egiteak aukera ematen dizu gauza berriak deskubritzeko, probatu nahi izateko eta sortzeko.

Artea eta sormena prozesu indibidualtzat hartzen duzu, edo prozesu kolektibotzat?

Nire kasuan, prozesu kolektiboa da %100ean. Azken finean, ni hautatzailea naiz eta nire lana beste pertsona batzuen lan artistikoaz elikatzen da erabat. Nire musika-saio guztiak nik ekoitzi ez ditudan abestiek osatzen dituzte, eta POSTMO gisa antolatzen ditudan ekitaldi guztiak beste artista batzuen parte hartzearekin sustatzen dira.

Nik ez dut musikarik sortzen, ez margorik, ez argazkirik, ez diseinurik. Nire lana esperientziak eta espazio artistikoak sortzea da, beste pertsona batzuen lanetik abiatuta.

Zer proiektu dituzue une honetan esku artean POSTMO Culturan?

Oraintxe bertan, udazken-negurako 2021 denboraldirako arropa “tekniko-ravera” bilduma bat sortzeko lanean ari naiz, The Gooogpeople markarekin elkarlanean, baina hau oraindik sekretua da.

COVID-19aren pandemiak zer nolako eragina izan du zure egunerokoan?

Lan-arloan, denbora gehiegi eman dut etxean, sortu eta antolatu nahi ditudan gauzetan pentsatzen. Ezinezkoa izan da gauza horiek martxan jartzea, murrizketen erruz. Pandemia amaitu eta dena apur bat normalizatzen denean proiektu asko ditut martxan jarri nahi ditudanak.

kultura

Folk musikaren hiriburu bilakatu da berriro ere Urduña

UrduFolk jaialdiaren 9. edizioa burutu zuten larunbatean Urduñan. El Trasno, Flatriqueira eta Joseba Tapia eta bere banda igo ziren Eskola Publikoko patioan jarritako oholtza gainera

10. EDIZIOARI BEGIRA

2022an ospatuko du jaialdiak bere 10.edizioa, eta dagoeneko antolatzaileak hasi dira urteurren zitan pentsatzen Asteburu bakar batera mugatu beharrean hilabete osoan luzatzen den jaialdi bat prestatu nahi dute, nazioarteko banda potente baten parte hartzearekin"

Abian da KulturLab egitasmoa Laudioko Lamuza Parkean

KulturLab egitasmoaren aurkezpena. **Aiaraldea.eus**

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Lau itsas-edukiontzi jarri zituzten uztailean Laudioko Lamuza Parkean. KulturLab 01 ekimena garatzeko baliatuko dituzte egitura horiek. Abuztuan egin zuten egitasmoa aurkezteko agerraldia, edukiontzien aurrean. Laudioko hiru sortzailek erabiliko dituzte Lamuza Parkean jarritako itsas-edukiontziak datozen hilabeteetan, sorkuntza-prozesuak garatzeko. Ander Perez izan zen azpiegitura estreinatzen lehenengoa abuztuaren 28an aurkeztutako esposaketarekin.

Laborategia bor-borka

Kulturzaleak elkarteak garatu du proiektua, SOS Parkea plataformak eta Kulturkom proiektuak lehenago eginiko bidearei jarraiki. Zentzu horretan, Laudioko Lamuza Parkeko espazioetan "kultura sortzaileak bultzatzea" eta "kultur eszenatoki berriak elkarlanean irudikatzea" izango da egitasmoaren xedea.

Hainbat ekintza egingo dituzte horretarako. Alde batetik, "Olana ibiltaria" ekimena garatuko dute. Olana erraldoi bat prestatu dute horretarako, eta bertan bildu dituzte Kulturkom jardunaldien ondorioak (Laudioko Kulturaren Batzarrak eta SOS Parkea plataformak 2019an egindakoak). 2035. urterako Lamuza Parkea "Kulturaren Parkea" bilakatzea proposatu dute, eta espazio horrek izan ahalko lukeen itxura plazaratu dute olanan. Laudioko hainbat tokitara eraman nahi dute irudia, herritarren irudimena piztu eta ekarpenak jasotzeko. Azalpen liburuxka bat ere prestatu dute, proposamenaren azalpen garatuago batekin. Kulturaren munduko pertsonekin eta erakunde publikoekin partekatuko dute proposamena.

Izan ere, Kulturzaleak elkarteko kideek uste dute orain dela eztabaida hori irekitzeko unea. "Une honetan, Arabako Foru Aldundia Kultur Etxearen barne-erreformarako aurreproiektu bat lantzen ari da", azaldu dute taldeko kideek, eta aldarrikatu dute aurreproiektu hori "Laudioko kultura eragileekin lankidetzan" garatu behar dela, "erreforma ez dadin hobekuntza formal hutsa izan, benetako aukera bat izan dadin laudioar kultura eraldatzeko eta berritzeko".

Nerea Apodakak aurkeztuko du hurrengo erakusketa bertan, irialaren 24, 25 eta 26an. Urriaren 29, 30 eta 31, ordea, Mederi Ferreñoren txanda izango da.

Amaia Santosen hitzei musika jarri die Sobrino Sobrado talde urduñarrak

Sobrino Sobrado taldea Urduñako Alondegian. **Aiaraldea.eus**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Iñigo Arrizabalaga musikaria proiektu berri batean murgilduta dabil: *Atrévete* abestia aurkeztu du Titi Calvo eta javier Peñarekin batera.

Arrizabalagak Amaia Santosekin kointziditu zuen, ASASAMeko kidea dena (gaixotasun mentala duten pertsonen eta haien senideen Aiarako Elkartea). Santosek olerkiak idazten zituen, eta musikariari eskatu zion baten bati doinua jartzeko. Arrizabalagak baietz esan, eta aste baten baitan hamarna olerki jaso zituen, gustukoena aukeratu zezan.

Hortik, Sobrino Sobrado bere taldeak, Voltium-ekin partekatzen duen elkarte horren irratsaio batera, Amurrio Antzokian poesia-errezitaldi batean parte hartzera (Dani Trujillanok lagunduta, kontrabaxura), eta haien aldetik, banda gisa, abestia grabatzeko, erregistratzeko eta single bat ateratzeko konpromisora jo zuen.

"Abesti honek, batez ere, egunero borrokatzeko gogoa transmititzen du. Egun nahasi hauetan sentimendu hori funtsezkoa izango litzateke, inolako susmorik gabe", aitortu du Iñigo Arrizabalagak.

Bere taldearen izenean azaldu duenez, "guretzat, Sobrino Sobrado-rentzat (Javier Peña baxuan eta Titi Calvo baterian), ereserki bat da, proiektu horretara zuzendu behar dugu gure energia guztia, jakin badakigulako pribilegiatuak garela eta kantuak askok beharko dugun ausardia adierazten duela".

Joserra Azcueren laguntza instrumentala eta grabazio-estudioan egindako lan ona ere badute; Iratxe Martínez de Arenazaren ahotsa. Eta "dena ondo badoa", laster *Atrévete* bideoklipa grabatuko dute.

"Ikasturtea gogotsu hasi behar da (hori esaten zidaten behintzat) eta, horregatik, plazer handia da gure azken proiektua aurkeztea", bukatu du musikariak.

20 urteko ibilbidea

Iñigo Arrizabalagak 1998an grabatu zuen *Bilbao* bere lehen abestia. Orduan sortu zuten Sobrino Sobrado taldea, eta geroztik ez diote jotzeari utzi.

Arrizabalagak adierazi duenez, datorren urriaren 10ean, osasun mentalaren munduko egunean, jendaurrean aurkeztu nahi dute abestia.

Amurrioko Udal Dantza Eskolak kanpusa antolatu du iriailerako

Amurrioko Udal Dantza Eskolako kideak, artxibo irudi batean. **Amurrioko Udala**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Amurrioko Udalak Dantza Eskola antolatu du ikasturte berriari hasiera emateko. Irailaren 13tik 24ra burutzeko, 'Sartu dantzaren munduan' kanpusa prestatu dute. Dantzaren inguruko hainbat jarduera egingo dira bertan.

Irailaren 1etik dago zabalik ekintzan izena emateko epea. Horretarako, Amurrioko Kultur Etxera bertaratu beharko du 5 eta 18 urte bitarteko parte hartu nahi duen ume eta gazte orok. Matrikularen prezioa 22,12 eurokoa da udalerrian erroldatutako ikasleentzat, eta 36,87 eurokoa erroldatu gabekoentzat.

Kanpusaren antolakuntzak Udal Dantza Eskolaren ateak irekiko dizkie herritarrei, bertako jarduera ezagutzera emateko eta dantzarekiko interesa modu atsegin eta dibertigarrian pizteko.

"Dantzaren munduan murgiltzeko une egokia da hau. Izan ere, bi astez, parte-hartzaileek etorkizuneko prestakuntzan lagungarri izango zaizkien alderdi garrantzitsuak ezagutzeko aukera izango dute"

"Dantzak erakartzen dituen arren, inoiz eskolarik jaso ez duten 5 eta 18 urte bitarteko ume eta gazteei egindako deia da", azaldu du Jon Ugarriza eskolako zuzendariak.Bertan, ballet, koreografia, coaching, balleteko eta ikuskizunetako jantziak edo familian dantzatzeko teknikak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera egongo da, besteak beste. Parte-hartzaileen adinaren arabera, lau talde ezarri dira: A taldea (5-7 urte), B taldea (8-10 urte), C taldea (11-13 urte) eta D taldea (14-18 urte).Ekimena bi astetan egingo da, irailaren 13tik 17ra eta irailaren 20tik 24ra, arratsaldez, 17:00etatik 20:15era

"Dantzaren munduan murgiltzeko une egokia da hau. Izan ere, bi astez, parte-hartzaileek aukera izango dute etorkizuneko prestakuntzan lagungarri izango zaizkien alderdi garrantzitsuak ezagutzeko", adierazi du Ugarrizak.

kirola

“Helmuga gurutzatu eta irribarre erraldoi bat atera zitzaidan”



LUKENE TRUJILLANOk (Amurrio, 2004)
ESPAINIAKO JUNIOR TXAPELKETAKO HIRUGARREN POSTUA LORTU ZUEN JOAN DEN UZTAILEAN, ARABARRAK TALDEAREKIN. UDAZKENEAN ZIKLOKROSS-EAN ARITUKO DA BETE-BETEAN.

Argazkia **Olga Chasco**
Testua **Unai San Pedro Camacho**

Nola eta noiz hasi zen txirrindularitzarekiko zure zaletasuna?

Txikia nintzenetik hasi zen, izan ere etxean beti jarraitu izan dugu txirrindularitza, nire aita txirrindularia izan zelako, nire lehengusu bat ere, eta azkenean beti hor egon den zaletasun bat izan da.

Noizbait erretiratzan pentsatu al duzu?

Ez, baina kostatu zitzaidan txirrindularitzan hastea. Aitak esaten zidan 12 urte izan arte ez hasteko, gero luze egiten zelako, eta orain arte beti jarraitzeko gogoarekin egoin naiz. Eta horrela jarraitzen dut momentuz, nire bizitzako zati bat da, goi maila batera heltzea amets bat bezalakoa da, eta pozik nagoen bitartean txirrindularitzan jarraitzeko asmoa dut.

Zein esango zenuke izan dela zure etaparik zailena?

Nire ustez azken hau izan da urterik txarrena, azkenean ikasketak direla eta ez delako urte erraza izan. Asko kostatu zitzaidan entrenatzera ateratzea, ez nuen gogorik, eta zaila izan da, lasterketak egin nahi nituelako baina ez nuelako entrenatzeko gogo askorik. Zaila egin zait, bai, baina azkenean gauzak ondo areta dira eta pozik nago, jarraitzeko gogo handiarekin.

Sakrifizio handia egiten duzu txirrindularitzan aritzeko?

Egia da txirrindularitzak denbora asko eskatzen dizula, eta horregatik beste gauza asko ezin dituzula egin, baina horrelakoa da eta horrela izango da beti, orduan onartu beharra dago.

Zein da zure entrenamendu errutina?

Normalean eskolako jolastokian bazkaldu eta etxera heldu bezain pronto arropa jantzi eta entrenatzera ateratzen naiz, batzuetan bi ordu, beste batzuetan 3, askotan bakar bat... Baina egunero ateratzen naiz txirrindulan ibiltzera.

Dietaren bat jarraitzen duzu?

Ez, momentuz ez. Oraindik Junior mailan nago eta ez dut beharrezkoa izan, baina suposatzen dut urtebete barru edo, 23 urtez azpiko mailan egongo naizenean, gauzak serioago jarriko direla, eta nutrizionista bat hartuko dudala gauzak are hobeto atera ahal izateko.

Pasa den uztailaren 18an brontzea lortu zenuen Espainiako Junior Txapelketan, zer sentitu zenuen helmugara ailegatzean, zeure burua hirugarren postuan ikusi zenuenean?

Egia esan, ez nuen espero, esan dudan bezala ez delako urte erraza izan. Gainera, ostiral horretan ondo aterako zitzaidala uste nuen lasterketa bat izan nuen, eta azkenean oso gaizki atera zitzaidan nire ustez. Orduan, ez neukan konfiantza hori, baina buelta eman ahal izan nion egoerari eta helmuga gurutzatzerakoan irribarre handi bat atera zitzaidan. Oso pozik nago, ez genuen ez nik ez inork espero.

Udazkenean ziklokross diziplinan sartuko zara bete-betean, zure gogokoena dela uste duzu?

Ez, errepideko txirrindularitza nahiago dut, azkenean gehien ikusten dena delako eta nik gehien jarraitzen dudana delako. Baina ziklokross-ean dagoen giroa oso ondo dago, maila guztiak eta bai neskak eta bai mutilak leku berean elkartzen garelako, eta oso polita izaten da, errespetu asko baitago guztion artean.

Zure ibilbidearen puntu onenean zaudela uste duzu?

Egia esan, Espainiako Txapelketan hirugarren postua lortu eta gero izan ditudan azterketak oso ondo atera zaizkit, uste dut horrek konfiantza eman zidalako, baina nire ustez asko hobetu dezaket oraindik aurtengoa ez baita urte onena izan. Gogotsu nago datozen denboraldiek zer ekarriko duten ikusteko.

Hurrengo konpromisorik?

Ez ditut espektatiba oso altuak jarri nahi, gero presio asko izango dudalako, baina gustatuko litzaidake hurrengo urtean pauso bat ematea. Aurten gauzak ondo atera badira lehenengo urtekoa izanda, ondo legoke 2022an guztia hobeto prestatzea eta aurrera-pausu bat ematea, urte garrantzitsu bat dela uste dudalako, gero taldea bilatzeko salto bat eman behar delako. Eta ziklokross-a aurten egingo da, iaz ez ziren ia lasterketarik egon.

Ondo egitea espero dut, eta ea zer datorren gero.

kirola

Futboleko 2021-2022 denboraldi berria heltzear dago. Aiaraldeko zenbait fuTbol taldek berrikuntzak egin dituzte ligan indartsu aritzeko: fitxaketak, entrenatzaile berriak, inskripzioak... Nola daude Aiaraldeko futbol taldeak denboraldi berriaren atarian?

Altzarrate Futbol Taldeko kideak. **Aiaraldea.eus**

Futbola ate-joka

Testua
Unai San Pedro Camacho

Aiaraldeko futbol taldeek ate joka dute denboraldi berria. Abuztuan hasi ziren prestaketa lanetan, eta lehiarako prest dira dagoeneko.

CD Laudio

Laudioko futbol taldeko nobedade esanguratsuenak uztailean eman diren entrenatzaile aldaketak izan dira. Euskal Ligako Gazte Taldeari dagokionez, Félix Fernández bilbotarra da entrenatzaile berria. Aleksander Kowalsczyk poloniarrak kluba utzi zuen urtebete eta gero, pandemiak oztopatutako denboraldian taldea gidatzen egon ondoren. Honek 6 garaipen, berdinketa bat eta 6 porrot gehitu zituen zuzendutako 13 partidetan. Fernandez SD Amorebietako Kirol Zuzendaria izatetik dator, eta esperientzia du futbol eratzailean.

Bestalde, lehen taldeari dagokionez, José Luis Pérezek hartu berri du taldea, Sebastian Setti argentinarrak utzi ondoren. Azken honek 9 garaipen, 6 berdinketa eta 4 porrot gehitu zituen taldea 19 partidetan zuzendu ondoren. Entrenatzaile berria oso arrakastatsua izan da Bizkaian: 9 igoera lortu ditu, eta Hirugarren mailara igotzeko promozioan aritu zen.

Altzarrate

Denboraldi honetan beste 2 kategoria sartu dituzte haien kirol-eskaintzan: parte hartzeko aukerak emakumezko seniorra, futbol 11ko kadete eta haurrena eta emakumezko benjamin areto futbola dira. Izen-ematea burutzeko hurrengo telefonoetan kontaktatu behar da: 699939389 eta 679799460.

Amurrio Club

Klubak 7 lagunarteko partida jokatu ditu, datorren denboraldia prestatzeko. Horietatik 5 berdindu ditu, bat irabazi eta bakarra galdu. Ligairailaren 5ean hasizuenetxean, CD Vitoriaren aurka. Taldearen helburua iraunkortasuna da, izan ere, Hirugarren RFEF maila oso gogorra da. Horretarako, fitxaketa berrien laguntza izango du CD Amurriok: EkaitzMarco, Danel Ibarrondo, Gorka Olazabal, Josu Hidalgo, Iker Montes, Jon Ander Maturana, Julen Castillo, Adrián Vich, Ander Peciña, Jon Aruabarrena, Jean Paul Montaño eta Mohammed Zannouti.

CD Orduña

Multzo bizkaitarraren Lehen taldeak, Laudiok bezala, entrenatzaile aldaketa izan du duela gutxi. Ander Rodríguez eta bere laguntzaile Gorka Martínezek taldea zuzentzen ez jarraitzea erabaki dute. Haiek ordezteko Iñigo Santocildes "Batzoki" sartu da. Entrenatzaile berriaren bigarren etapa izango da Urduñan, 2007-08an entrenatu baitzuen. Baita Amurrion aritu zen ere, Hirugarren mailan. Liga irailaren 26an hasiko du, Etxebarriren aurka.

Etorkizuna-Kaskagorri

Amurrioko taldeek ekainean zabaldu (eta itxi) zituzten talde bakoitzerako izen-emateak. Etorkizun futbol taldean benjaminaurreko, benjamin eta hasiberri kategoriako haurrek izan zuten izen-emateko aukera, 2010etik 2015era jaiotakoek. Kaskagorrin, ordea, haur, kadete eta gazteek izan zuten futbolean izen-emateko aukera.

kirola

MENDIA

Txarlazo Mendi Taldeak Pirinioetara irteera antolatu du irailaren 18 eta 19rako

Castillo d'Acher mendia igoko dute Txarlazoko kideek. **Inda Aguado**

Testua
Unai San Pedro Camacho

Urduñako Txarlazo Mendi Taldeak irteera bat antolatu du Pirinioetara. Irailaren 18an, larunbata, Acheritoko iboira igoera egingo dute, 1.867 metroko desnibelarekin eta 3 orduko iraupenarekin. Igandean, ordea, Castillo d'Acherrera egingo da igoera, 2.384 metroko altuera duen Pirinioetako gailurra.

Irteera larunbatean egingo da, suhiltzaileen egoitzaren aurreko autobus geltokitik, 8:00etan. Iboira txangoa burutu ondoren, afaria, ostatua eta gosaria programatuta daude, Ozako basoko Borda Bisaltico kanpinean. Hala ere, mendi taldetik komunikatu dute parte hartzaile bakoitzak larunbaterako eta iganderako janaria eraman behar duela.

Izen-ematea Lupardika tabernan edo Txarlazo Mendi Taldearen egoitzan egin daiteke, astearte-an 19:00etatik 21:00etara. Epea gaur -irailak 8- bukatuko da.

TXIRRINDULARITZA

Aiarako gazteak taldekako sailkapenean garaile

Aiara Txirrindulari Elkarteko kideak Artziniegan. **ATE**

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Igandean -irailak 5- Arabako Itzuliaren XLIII. edizioko bigarren jardunaldia jokatu zen Artziniegan. Kadete mailako txirrindulariek Artziniegako Txirrindulari Elkarteak prestatutako 57 kilometroko ibilbideari egin behar izan zioten aurre. Aiara Txirrindulari Elkarteko kideek lan ona egin zuten etxeko errepideetan barrena. Peio Albizuak lasterketa erdian ihesaldia egin zuen. Aiarako kadeteek taldekako sailkapena irabazi zuten.

IPAR MARTXA

Izaskun Bengoa Espainiako ipar-martxako Kopan garaile atera da berriro ere

Izaskun Bengoa Azagrako podiumeko lehenengo postuan. **Izaskun Bengoa**.

Testua
Unai San Pedro Camacho

Amurrioarrak lehen postua lortu zuen iragan irailaren 5ean Azagran jokatutako frogan

Iragan irailaren 5ekoa Izaskun Bengoaren bigarren garaipena izan zen Espainiako ipar martxako Kopan. Izan ere, txapelketako lehen jardunaldia irabazi zuen pasa den uztailaren 4an, eta berriro garaitu zuen igandean.

Aurkaririk ez

Azagrakoa 12,8 kilometroko ibilbidea izan zen, 3,2 kilometroko bueltak burutuz. Emakumezkoetan Bengoak podiuma errepikatu zuen, eta Gasteizen lehen proba egin zenetik Kopako sailkapenean duen lidergoa mantetzen du. Amurrioarrak 1:21:14an bukatu zuen, emakumezkoen artean lehenengoa eta sailkapen nagusiko zazpigarrena izanez. Atzo ez zuen aurkaririk izan lehen postua defendatzeko.

Bestalde, gizonezkoetan, Ramón Álvarez izan zen atzoko garaile.

Oraindik Espainiako Kopako beste bi froga ditu aurretik Izaskun Bengoak: Valladoliden (irailak 19) eta Sevillan. Horretaz gain beste lau lasterketatan parte-hartzea aurreikusi du urtea amaitu aurretik, horietako bat da urriaren 24an jokatuko den Kluben Txapelketa.

Aurrera jarraitzeko gogoz

Kirolari amurrioarra oso motibatuta dago aurrean dituen erronkei heltzeko. Dagoeneko, lorpen ugari lortu ditu Izaskun Bengoak: ekainaren 6an Espainiako txapeldunorde izan zen, Coruñan jokatutako ipar martxako Espainiako Txapelketan. Eta, Espainiako Kopako lehen jardunaldia irabaztearekin batera, Arabako eta Euskadiko txapelak ere irabazi zituen. Bengoak denboraldi honetan ekin dio ipar-martxan lehiatzeari eta marka guztiak hausten ari da. Hori gutxi balitz kirol hau bilakatu du bere ogibide. Izan ere, hastapen ikastaroak eta entrenamenduak eskaintzen ditu Aiaraldeko udalerri desberdinetan.

herriko plaza

Paula

Iraila osoa zure eguna delako, zorionak Paula!

Etxekoak

Madrileñoa

Animo Jon Txomin zure etapa berri honetan! Segi madrilen ere beti bezain piketero! Maite zaitugu!

Pikete Style

BIDALI ZURE ZORION AGURRA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Irailaren 22an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

	4		6		5			
3					8			2
2		5	3		7		4	6
	3		4	7	2	8		
		6						
	9		5	8	6			
				5				8
4	5			6				
6			8				7	

ZAILA

				5		8	2	
	5		2	8	6			
8			3		7	6		5
	8			4			5	7
							6	
		2		6			4	9
4	7	6	5				8	2
	3		4					
5								4

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak

KOKORIKO

IRAKURKETA GUNEA

ZEIN KOLORETAKOA DA MUXU BAT?

Idazleak: Rocio Bonilla
Argitaletxea: Algar
Monika deitzen den arren, Minimoni deitzen diote margoztea ikaragarri gustuko duen haur honi. Ondo margozten ditu marigorringo gorriak, zeru urdinak... baina inoiz ez du muxurik margotu. Zein koloretakoa ote da?



MOMO

Idazlea: Michael Ende
Argitaletxea: Begiko
Adina: 12 urtetik gora
Momo Italian bizi den neskatila gazte bat da.Hitz gutxikoa da baina entzuten oso ondo dakiena. Grisezko gizonek etsaitzat dute Momo, Grisezko gizonek denboraren aurrezki kutxa bat daukate eta norbanakoek beraien denbora bankuan uzten dute “baliorik gabeko” denbora.

JOLAS GUNEA

PIRATEN GALEOIA

LEKUA: Gasteiz (Araba)

AZALPENA:
Jolas parkeak piraten benetako galeoi bat dirudi harean hondoratuta. Jolas anitz ditu bere baitam, tirolinak txirrista erraldoiak...

Jolas parkeak guztira 3000 metro karratu eskaintzen ditu adin guztietako haurrentzako jolaserako.

Parkearen ondoan urarekin jolasteko egiturak eta beste hainbat zabu daude, gizaki aurpegidun basoa ere badu jolas parke honek.

KAPLA

Kapla egurrez eginiko piezaz osatutako bilduma bat da. Egurrezko pieza guztiak berdinak dira.

Jolas ugari egiteko balio du, eraikuntza da ziurrenik bere erabilerarik handiena. Piezek aukera ematen dute burutik pasatzen den hori sortzeko.

Eraikuntza handiak zein txikiak sortu daitezke jolasarekin. Kontzentrazioa eta oreka lantzen dituen jolasa da. Eraikuntzak gainera pentsamendu matematikoa garatzen laguntzen du, baina jolas honetan sormena ere sartzen da tarteko eta beraz buruaren bi hemisferioak batera funtzionatzen jartzen ditu.

Eraikuntzaz gain, jolas sinbolikorako aukera ere ematen du, egiturarik gabeko materiala delako. Baita musika egiteko ere edo burutik pasa ahal den beste edozertarako

KOKORIKO

KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Kontziliazioa

Udak azken egunak bizitzen dituen bitartean udazkena dator bere kolore hori, laranja eta marroiekin. Udazkena gerturatzen denean, haurrak eskolara bueltatzen dira eta helduak beraien lanetara itzuli, ordainduzkoak izan edo ez ordainduzkoak izan.

Garai honetan askotan entzuten da kontziliazioa ezinezkoa dela, oso zaila dela lana eta zaintza uztartzea. Orduan hasten gara fokua eskoletan kokatzen, eskolak izango balira moduan kontziliazio horren bermatzaileak. Haurraren ordutegiak koadratzen eta betetzen hasten gara, eskola, jantokia, eskolaz kanpokoak... Haurra objektu pasibo bat bilakatzen da, toki batetik bestera salto egiten duena inolako erabakirik gabe. Agian bizpahiru eskolaz kanpokoen artean aukeratzen eskaintzen zaio, baina, haurrak bai edo bai denbora tarte horretan okupaturik egon behar du. Haurraren denboraren kudeaketa lan erritmo zorrotz bati lotuta egoten delarik.

Egoera ez da erraza, baina kontziliazioa deitzen den horretan, ez da haurrarengan inolaz ere pentsatzen. Helduen lanaren araberako erritmoa ezartzen zaio haurrari. Gobernuek, haurrengan jarri beharko lukete begirada, beraien beharrak aztertu, entzun, sentitu... eta horren arabera jokatu

Ziurrenik haurrengan jarriko bagenu begirada, iraileko helburua ez litzake izango haurraren denbora betetzea, baizik eta haurrak bere erreferentziazko pertsonekin ahalik eta denbora gehien ematea.

Ea behingoz uzten diogun sistema egunero erreproduzitzeari eta haurrak logika merkantilista horretan hezteari. Horrela akaso haurren beharretara egokitutako hazkuntza bati ateak irekiko genizkioke eta haurrak merezi duen erdigunea hartuko luke.

AIARALDEKO HEZKUNTZA FAKTORIA

SieStaN

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?



DoMiNoaN

Osa itzazu lauki zuriak, domino zati honek zentzua izan dezan.

Meloia, angurria, muxika eta bi izozki mota marraztu behar dituzu.

SOLUZIOAK

Ishtar
English Academy
Matrikula-epea irekita
Adin eta maila guztiak
10 urtetik goragoko esperientzia
Ostegieta enparantza 5A, Laudio
946 548 760 · 654 163 406
@ishtarenglishacademy · wwww.ishtaracademy.com

AGROLAUDIO
ANIMALIA ETA LANDAREENTZAKO BEHARREZKO GUZTIA
Arza poligonoa, LAUDIO
946 722 201
www.agrolaudio.com

ERRIOXAKO PIPIERRAK (Leiva)
Pikilokoak edo najerakoak
Freskoak edo erreak · Eskatu zureak 946 722 201 telefonoan

Kontra

Mundutik Aiaraldera

Stig Nygaard

Yonder Mujika

JAIOTERRIA
LOS TEQUES (VENEZUELA)

BIZILEKUA
AMURRIO

BIDAIAREN ZERGATIA
FAMILIAREKIN BATERA ETORRI ZEN VENEZUELATIK AMURRIORA

"Euskara ikasteak talka kulturala leuntzen lagundu dit"

Noiz etorri zinen Euskal Herrira?

Ama 2016an etorri zen Euskal Herrira Venezuelatik. Bilbon hasi zen lanean eta bertan bizi izan zen denboraldi batez, lagun bat baitzuen hirian. Gerora Amurrion aurkitu zuen lana eta baita bizilekua ere. Ez zuen herria inondik inora ezagutzen baina asko gustatu zitzaion eta hemen gelditzea erabaki zuen. Orduan etorri nintzen ni, 2018ko azaroan, oker ez banago.

Amurrioko euskaltegian eman zenuen izena euskara ikasteko, zergatik?

Batxilergoa hasi nuen Laudioko Udal Lanbide Heziketa Eskolan, eta bertako irakasle batek esan zidan askoz hobeto harrapatuko nuela eskolen erritmoa baldin eta euskaltegira joaten banintzen.

Zenbat denbora egon zara euskaltegian?

Bi urte eman ditut bertan, batxilergoa atera bitartean hain zuzen. Oso esperientzia positiboa izan da. Urduri nengoen hasieran baina ederki pasatu dut.

Uste duzu zaila dela euskara ikastea?

Zaila da, baina ez beste hizkuntza bat baino gehiago. Jarrera kontua da, ikasteko gogoz baldin bazaude ikasi egingo duzu eta ikasketa prozesuarekin disfrutatuko duzu. Ni hasieran asko nahasten nintzen atzizkiekin, aditzekin, eta beste hamaika kontuekin! Bakoitzak gainera bere trukoak ditu hizkuntza ikasteko. Gure klasekide baten mutil laguna Asier deitzen zen eta "hasi" hitzarekine ralzionatzen zuen honen esanahia ez ahazteko. Nik ere berdin egiten nuen. Gure heziketa fisikoko irakaslea Asier zuen izena ere eta truko bera erabili izan dut. Horrelako hamaika anekdota izan ditugu bi urte hauetan zehar euskaltegian. Oso giro ona egon da gure artean, nik pila bat disfrutatu dut. Oso berbatia naiz, beti nengoen hitz egiten.

Aurten ez duzu euskaltegian jarraituko?

Ez, aurten goi mailako ikasketekin hasiko naiz. Marketinga eta publizitatea ikasiko ditut. Hala ere saiatuko naiz euskara praktikatzen. Nire anaia txikia lehen hezkuntzako 3. mailan dago baina nahiko ondo hitz egiten du euskaraz, berarekin praktikatzen jarraituko dut; nik etxerako lanekin lagundu eta berak nirekin euskaraz hitz egin.

Zer da Amurriora etorri zinenean gehien harritu zintuena?

Gehien harritu ninduena Amurrioko kaleetan dagoen lasaitasuna. Ni Los Teques hirikoa naiz, Caracasetik gertu. Oso hiri handia da, jende asko bizi da eta ez dago kaleko bizitza egiterik; Amurrion ordea bai, eta asko gogoko dut. Talka kulturala oso handia izan zen hona iristerakoan, oso herrialde desberdinak dira. Uste dut euskarak lagundu egin didala talka kulturala hori leuntzen. Orain ulertu egiten dut kartel eta pankartetan jartzen duena eta horrek asko pozten nau.

Gainera munduan oso pertsona gutxik dakiten hizkuntza dakit orain. Hori altxor hutsa da!

VENEZUELA

DESKRIBAPENA
Venezuela Hego Amerika iparraldeko estatu burujabea da. Espainiar kolonia izan zen, 1823an Simon Bolivar generalak gidatutako independentzia gerra bukatu zen arte. Gerora Kolonbia Handia errepublikaren parte izan zen; 1829an banandu eta burujabe egin zen.

AZALERA
916.445 kilometro koadro.

BIZTANLEAK
28,5 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK
Gaztelania eta hizkuntza indigenak.

Argitaratzailea: Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioia, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILE BOLUNTARIOEI:
Eider Solatxi, Aitor Fernandez de Pinedo, Koldo Rodriguez, Jon Catalan, Christian Alemany, Aitziber Alava, Endika Arribas, Jabi Asurmendi, Iñaki larrakoetxea, Elixarraitz Mendiguren, Gemma Corbella, Lander Ria, Cristina Gonzalez, Eunate Molinuevo, Andima Landaluze, Xabi Ugalde eta Alberto Martinez

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

orozko · Urduña Orduña · Artziniegako Udala · ausolan · Arrankudiaga Zollo Udala · Aiarako Udala Ayuntamiento de Ayala · Arakaldo · Okondoko Udala · Laudio Udala Ayuntamiento de Llodio · Amurrio Udala · G! Graf!k Tellería 2, Laudio (Araba) 94 672 65 43// info@grafiksarea.ecom · Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava · Euskadi Jaurlaritza Gobierno Vasco Kultura eta Hizkuntza Politika Saila